

# LITERATUR LEHIAKETA 2009

## ORIO



**ESKOLAUMEEN**

**LITERATUR LEHIAKETA 2009**

**ORIO**



Orioko Udala

Azala: Nerea Erkizia  
Legezko gordailua: SS 477/88  
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

# AURKIBIDEA

<i>Hitzaurrea</i> . Josu Galdos .....	5
<i>Pirata</i> . Aimar Irastorza .....	7
<i>Fermin eta Txomin</i> . Dania Alguacil .....	7
<i>Udaberrian</i> . Laida Romero .....	9
<i>Dortoka</i> . Andoni Cuenca .....	9
<i>Zalduna</i> . Antton Iturain .....	11
<i>Txoriak zeruan</i> . Amaia Izagirre .....	13
<i>Urtaroak</i> . Oihana Olasagasti .....	13
<i>Udaberria maitea</i> . Jon Uranga .....	15
<i>Pinguinoek surfean ikasi dute</i> . Aimar Albizu .....	15
<i>Tximeleta triste bat</i> . Lydia Etxaniz .....	17
<i>Txori txiki bat</i> . Lurdes Sarasua .....	17
<i>Olerki, olerkitxo!</i> June Arruti .....	21
<i>Oierren bataioa</i> . Joseba Iribar .....	21
<i>Txinako neska euskalduna</i> . Nerea Erkizia .....	23
<i>Alaska: milaka pinguino</i> . Borja Esnal .....	25
<i>Aspiragailuak katarroa harrapatu du</i> . Iñaki Sarasola .....	27
<i>Hegazkina banintz</i> . Mikel Atxega .....	31
<i>Kometa galdua</i> . Ibon Valle .....	31
<i>Leire eta bere laguna</i> . Ane Colado .....	33
<i>Haritz eta Rocky</i> . Naroa Miralles .....	35
<i>Maitasunak</i> . Maria Azkue .....	39
<i>Zein eder</i> . Mikel Ibarbia .....	41
<i>Igeldoko itsasargia</i> . Andoni Uranga .....	43
<i>Natura festa</i> . Maria Azkue .....	43
<i>Maritxu eskolara doa</i> . Aitor Elizalde .....	47
<i>Xabi itsasoan</i> . Leire Izagirre .....	51
<i>Maitea</i> . Izaro Houghton .....	57
<i>Txoriak zeruari</i> . Maialen Rodriguez .....	59
<i>Basoko abentura</i> . Izaro Houghton .....	59
<i>Natura eta animaliak</i> . Aitor Larraza .....	65
<i>Zuhaitz berezia</i> . Jone Moran .....	67
<i>Jaitsi zaitetz mundura</i> . Intza Unanue .....	71
<i>Ainitzewoman eta Neguman</i> . Maitane Escudero .....	73
<i>Sandra mundu misteriotsuan</i> . Alaitz Miera .....	83
<i>Hotzaren negarra</i> . Amaia Arregi .....	87
<i>Maitasuna</i> . Joxe Mari Errasti .....	91
<i>Lopez jarri digute</i> . Ander Atorrasagasti .....	95
<i>Ametsen jarraipena</i> . Ibai Bastos .....	96

<i>Formula. Oihane Lertxundi</i> .....	99
<i>Amaierarik ba al du? Ander Orbañanos</i> .....	103
<i>Lau pareta artean. Janire Arrondo</i> .....	105
<i>Euskalduna izatearen arazoa. Aurora Makazaga</i> .....	109

# Hitzaurrea

Hasteko, zorionak lan honetan parte hartu duzuen guztiei, eta, baita ere, kanpoan kabitu ezinik gelditu ziren egileei, azken hauen lanak ere bikainak izango baitira.

Idaztea eta margotzea gustuko duzuenei, animo eta horrela jarraitu, barruan daukazuen sentimendu eta korapiloak atera eta askatzeko era ederrak baitira.

Iazko bildumari begiratu bat eman diot, ez bainekien hitzaurre honetan zer jarri, eta, egia esan, asko gustatu zait. Marrazki ederrak ikusi ditut, eta idatzietan gai aniztasun handia topatu dut: minbizia, bortxakeria, maitasun kontuak, bazterketa, urrutiko lurralde eta garaiak, lagun kontuak, gerrak... Baina, dudarik gabe, humorea eta imajinazio itzela dira iazko bilduman nagusi. Aurtengoan ere ez dut uste faltako direnik.

Eta, agur esan aurretik, heldu eta gurasoei lan hau irakurtzera gonbidatzen zaituztet, herri honetako haur eta gazte batzuk hobeto ezagutzeko eta, batez ere, oraindik imajinazioz beteta daukagun buru gazte eta kurioso hori berpizteko asmoarekin. Besterik gabe, on egin.

*Josu Galdos*



# Pirata

Pirata, tras!  
Irristatu da, ras!  
Arrasta bat egin du, kras!  
Hanka moztu diote, zast!  
nola ibiliko da?  
Hanka paloa jarrita!


*Aimar Irastorza*

# Fermin eta Txomin

Fermin eta Txomin,  
jolasean fin-fin,  
baina batzutan min,  
biak dabilta beti  
firin-firin.

*Dania Alguacil*





*Andrea Agudo*

# Udaberrian

Udaberrian hostoak  
firin-faran  
arbolak  
fiu-fiu.  
Neska bat  
leihotik pasa da,  
oihu egin diot:  
fi-fu  
eta esan diot  
egun on!

*Laida Romero. Herrio natur saria*

# Dortoka

Bazen behin dortoka jaio berri bat. Umetxoak zeuzkan. Esan zien umetxoei:

—Gelditu hemen!

Orduan, leopardo a etorri zen eta umetxoak jan zituen.

Dortoka amak aurkitu egin zuen leopardo a, eta elefantea etorri zen eta leopardo a hil egin zuen.

Dortoka poz-pozik gelditu zen. Ama leopardoaren tripara joan zen eta umetxoak atera zituen. Amak esan zien:


—Jolastera!

Jolastera joan ziren eta gero etxera, telebista ikustera.

Gero, denok paseatzera joan ziren eta txalupa bat aurkitu zuten arraunekin.

Mendi bateraino joan, eta handik beste mendi batera abiatu ziren poz-pozik.

Egun batean, paseatzen zeuden bitartean, lapur bat etorri zitzaien, kume guztiak harrapatzera. Dortoka amak poliziari deitu zion. Orduan, Goku eta Gojan etorri ziren eta dortoka kumeak salbatu zituzten kamejame batekin. Goku eta Gojan dortokaren etxera joan ziren. Pizza afaldu zuten eta gero ohera joan ziren.



*Irati Antia. Herrio natur saria*

Hurrengo egunean paseatzera joan ziren kobazulo batera. Han xaguzaharrak zeuden, baina ez zekiten hegan egiten. Dortokak xaguzaharrak hartu zituen eta etxera eramán zituen.

Denak batera, herrira joan ziren eta festetara joan ziren. Autotxoketan ibili ziren, tio-bibotan eta Pepito Grillon ere bai.

Denak batera oso pozik bizi izan ziren.

*Andoni Cuenca*

## Zalduna

Bazen behin zaldun bat, animaliak ehizatzen zituena. Arturo izena zuen zaldun horrek. Japonekoa zen. Arturo gaztelu batekoa zen.

Behin Txinara joan zen lagun baten bila. Halako batean, gaztelu bat aurkitu zuen. Erregeari galdetu zion:

—Errege, soldadu izan naiteke?

Erregeak baietz erantzun zion.


Denok gerrara joan ziren. Irabazi egin zuten eta denak oso pozik jarri ziren. Gero berriro gaztelura joan ziren eta konturatu ziren lapurrak sartu zirela. Lapurrak harrapatu zituzten eta, gero, hil egin zituzten aizkorarekin.

Erregea hil egin zen katarro batengatik, eta Arturo neska batekin ezkondu zen. Ane zuen izena eta ume bat izan zuten. Umea oso txikia zen, eta Jon jarri zioten izena.

Arturo errege bihurtu zen eta Ane erregina. Jon printze bihurtu zen.

Egun batean, arrantza egitera joan ziren aita eta biak. Hamar arrain harrapatu zituzten. Gaztelura itzuli zirenean, gaztelua puskatuta ikusi zuten. Lurrikara batek puskatu zuen. Oso triste jarri ziren denak. Gaztelua konpontzeko, ez zeukaten ezer ere, eta arrainak herriz herri saldu zituzten. Diruarekin gaztelua konpondu zuten. Gero lasai bizi izan ziren.

*Antton Iturain*



*Xabier Ibarquren*

# Txoriak zeruan

Txoriak zeruan,  
jendea mendian,  
eta zu ilargiaren begian  
azkar joan izarren bidean.

Esnatu zen eta jendea  
gaiztoa zela pentsatu zuen.  
Esnatu zen eta eguzkiak  
Argirik ez zuela pentsatu zuen.  
Esnatu zen eta ilargia  
arrosa zela pentsatu zuen.

*Amaia Izagirre*

# Urtaroak


Negua elurretan,  
umeak pozik  
elur panpinaren sudurtxoarekin.

Udaberria etorri da gure loretxoekin,  
tximeletak hegan, erleak ziztan.

Uda, uda! hondartzaren erregea,  
kresala uretatik dator,  
umeak dantzan.

Udazkena etorri da,  
zuhaitzetatik hostoak dantzari,  
oreinak belarretan, punta zorrotzak adarretan,  
jendea pozik urtaro guztietan.

*Oihana Olasagasti*



Laida Urbitarte

# Udaberria maitea

Udaberria maitea,  
niri asko gustatzen zait,  
txoriak jaiotzen dira;  
nire bihotzean  
dago udaberria.

*Jon Uranga. Herrio natur saria*

## Pinguinoek surfean ikasi dute

Uda iritsi zenean, Ipar Poloan izotz guztia urtu egin zen eta pinguinoak berotan egoten ohitu ziren. Pinguino batek surfa asmatu zuen eta pinguino mutil guztiak ikasi egin nahi zutela eta ikasi egin nahi zutela ari ziren eta surfa asmatu zuenak esan zuen:

—Bale! Badakit zer egin! Ume guztiei surfa erakutsiko diet.


Horrela, ume guztiek surfean ikasi zuten eta lehiaketa bat antolatzea pentsatu zuten. Lehiaketa hartan milaka pinguino gazte apuntatu ziren eta arrakasta handia izan zuen. Pinguino asko joan ziren ikustera eta parte hartze handia egon zen.

Batek bakarrik irabazi zuen lehiaketa eta domina bat eta urrezko kopa bat eman zizkioten.

Eta, handik aurrera, pinguino txiki guztiak surfista onak izan ziren Ipar Poloan eta zoriontsu bizi izan ziren.

*Aimar Albizu*





*Ander Zubizarreta*

# Tximeleta triste bat

Behin bazen tximeleta triste bat. Kolore gorria eta urdina zeukan. Handia zen. Oso triste zegoen lagunik ez zeukalako. Etxean gelditu zen.

Hurrengo egunean basora joan zen. Basoan galdu egin zen eta beste tximeleta bat ikusi zuen.

Lagunak egin ziren eta, hurrengo egunean, biak mendira joan ziren eta otso bat ikusi zuten.

Otsoak tximeleta tristea jan egin zuen. Bere laguna uretara bota zuen eta ito egin zen.

Orduan, otsoa uretara erori zen, ehiztari batek tiro egin ziolako.

Eta ehiztariak uretako tximeleta atera zuen eta ez zegoen hilda. Ehiztariak tximeleta etxera eramane zuen eta bere seme-alabei erakutsi zien.

Egun batean eskolara eramane zuten eta txangoa egin zuten. Basora joan ziren eta han tximeleta askatu zuten.

Handik aurrera, batzuetan basora joaten dira tximeleta ikustera.

*Lydia Etxaniz. Herrio natur saria*

# Txori txiki bat

Bazen behin txori txiki bat eta arrautza jarri zuen.

Txoriak ez zeukan habiarik. Oso gaixorik zegoen. Parkeko zuhaitzean zegoen. Arbolak zulo bat zeukan eta hor sartzen zen.

Eta neska batek, ikusi zuenean, beretzat hartu zuen. Etxera eramane eta aitari eta amari esan zien:

—Txoritxo bat ikusi dut eta gaixorik dago.

Eta aitak eta amak zopa beroa eman zioten txoritxoari. Neskak berriz esan zuen:

—Txoriak arrautza egin du.

Baina ez zioten sinesten. Eta arrautza hartu eta gurasoei eman zien. Sinistu zioten, baina txoria kezkatuta zegoen eta alabak esan zion txoriari:



*Ramunas Almanaytite*

—Tori arrautza. Baina zergatik zaude kezkatuta? Gurasoei eman behar nien sinesteko. Zu lasai, inoiz ez zaitut abandonatuko eta.

Eta, oso berandu zenez, lotara joan ziren.

Hurrengo egunean, neska txoria ikustera joan zenean, sendatuta zegoela ikusi zuen. Baina arrautza puskatuta zegoen eta txori txiki bat jaio zen.

Txoria oso pozik zegoen bere umea jaio zelako; baina txori txikia oso gose zen eta ama janariaren bila joan zen eta euli bat bilatu zuen umearentzat.

Hurrengo egunean, txori amak esan zion neskari:

—Bihar banoa nire umearekin hegan.

Horregatik, egun horretan txori txikia entrenatzen egon zen gelditu gabe.

Azkenean, joateko eguna iritsi zen eta txori ama eta txori txikia joan egin ziren. Neska penetan gelditu zen txoriari agur esan zionean.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Orioko plazan.

*Lurdes Sarasua*



*Naudar Elghailani*

# Olerki, olerkitxo!

Olerki, olerkitxo!  
hain zara pinpirintxo!  
Beti jartzen diguzu irribarretxo!

Olerki, olerkitxo!  
Zure hitzak nahi ditut asmatu  
horiekin jolastu,  
nahi zaitut moldatu.

Olerki, olerkitxo!  
lana jarri zait zaila  
ederra baina,  
konturatu gabe iritsi nahiz amaierara.  
Olerki, olerkitxo!  
hain zara pinpirintxo!

*June Arruti*

# Oierren bataioa

Oierren bataioa  
atzoko egunean,  
egun ederra genuen  
bere izenean.  
Elizan hasi eta  
bukatu mahaiean,  
familia osoakin  
umore ederrean.

*Joseba Iribar*



*Nahikari Larrañaga. Herrio natur saria*

# Txinako neska euskalduna

Joan den urtean, Euskal Herriko Mugarte izeneko herrixka batean, neska bat bizi zen. Txinatarra zen. Zer egiten zuen neska txinatar honek Mugartean? Kontatuko dizuet.

Txinan bi ume baino gehiago ezin da eduki. Hango bikote bat oso pobrea zen eta ez zekien zer egin laster izango zuten hirugarren umearekin. Alaba jaio zenean, jakin zuten Euskal Herrian familia asko zeudela umea eduki ezinik eta hara bidaltzea erabaki zuten neska jaio berria, Jone.

Ana eta Asier dira Joneren guraso euskaldunak. Txinatik deitu zietenean, asko poztu ziren. Hara bidaiatzea erabaki zuten eta egun batzuk han gelditu beharko zuten.

Txinan oso gustura ibili ziren. Lehenengo bi egunak arropa jaten egon ondoren, eguerdi batean igel hankak zerbitu zizkieten. Ez zitzaizela gustatuko pentsatu zuten, baina probatu eta gustatu zitzairen. Eskurtsio batean Harresi Handira joan eta argazki ederrak atera zizkieten. Eta, iritsi zenean Jone hartzeko ordua, ospitalera joan ziren.

Han zain zeudela, emakume bat eta gizon bat etorri ziren, eskutik neska txiki polit bat zutela. Emakumeak negar egiten zuen, baina Anak eta Asierrek oso ondo zainduko zutela agindu zioten.

Mugartera iritsi zirenean, bere etxea erakutsi zioten Ana eta Asierrek Joneri. Hasieran, Jone arraro sentitzen zen Euskal Herrian. Urte batzuk pasata, gero eta gehiago gustatzen zitzaizkion parkeak, piszinak eta beste gauza asko ere bai. Eskolara hasi zenean, hasieran lotsatu egin zen; baina lagunak egin zituen berehala.

Behin gelan irakasleak DVD bat erakutsi zien Txinari buruz eta Joneri Txinara joateko gogoia sartu zitzaion. Etxera joan zenean, gurasoei galdetu zien ea ahal zuten Txinara joan. Baietz esan zioten; baina udako oporretan joango zirela. Joneri oporretarako falta ziren egunak mantso pasa zitzaizkion. Bitartean, Txinako DVDak, albisteak eta abar ikusten zituen askotan.

Udako oporrak ailegatu ziren. Maletak prestatu zituzten eta uztailearen 2an abiatu ziren Txinarantz.

Txinara iritsi zirenean, bere benetako ama eta aitarengana joan ziren. Egunak pasa zituzten bere etxean eta guztiak oso pozik zeuden. Eskurtsioak egin zituzten, museoak ikusi eta beste gauza asko ere bai.

Uda bukatu zen eta Mugartera itzuli behar zuten, baina Jonek ez zuen nahi. Txinan leku politak ezagutu zituen, lagun onak egin zituen eta pena handia ematen zion agur esan beharra. Azken egunetan pila bat euri egin zuen eta Ibai Horiaren ura bere bide-tik atera zen, uholdeak izan ziren eta hegazkinak ezin zuten abiatu. Albiste hau entzun zuenean, Jone poztu egin zen beste bost egun pasa behar zituelako han.





*Mikel Lizarralde*

Bitartean, Ana eta Asier kezkatzen hasi ziren, Jone gero eta gustuago zegoelako Txinan eta pentsatzen zuten asko kostatuko zitzaiola Mugartera itzultzea. Eta hala gertatu zen. Bueltako egunean Jone negarrez eta negarrez hasi zen, ez zuelako Euskal Herrira etorri nahi. Baina bere gurasoek esan zioten bazeudela Euskal Herriko lantegi batzuk Txinan fabrikak zituztenak eta pentsatzen ari zirela Txinara lanera etortzea, haiei ere asko gustatu zitzaielako. Baina orain itzuli behar zutela, gauzak konpontzera. Horrela konbentzitu zuten Jone, etxera itzultzeko.

Mugarten Asierrek eta Anak fabrikan Txinako lanpostuak eskatu zituzten eta eman egin zizkieten. Euskal Herriko etxea saldu egin zuten eta Txinara joan ziren bizitzera.

Eta Jone, horrela, Euskal Herriko eta Txinako gurasoekin bizi izan zen.

*Nerea Erkizia*

## **Alaska: milaka pinguino**

Pinguinoak animaliak dira kopetatik hanketara zuriak eta besoen partez hegal txikiak dituzte. Bi oinen gainean ibiltzen dira, tipi-tapa, tipi-tapa. Horietako bat, Phil izenekoa, kaio batez maitemindu zen. Beti zerutik hegan pasatzen zen kaioa. Egun batean Philek kaioa bazkaltzera gonbidatu zuen familiarekin eta bankete bat prestatu zuten.

Pare bat egunera arrantzale bat etorri zen pinguinoak harrapatzeko asmoz. Pinguinoz mozorrotu zen. Hainbeste denbora egon zen han, zer, azkenerako, pinguinoen laguna egin zen. Azkenean, mozorroa kendu zuen eta itsasontziaren zain geratu zen, bere herrira itzultzeko.


Handik bi urtera itsasontzi bat etorri zen; baina, nolakoa zen ikusita (pinguinoak urkatuta, lau izurde isatsetik zintzilik, hamasei txakur amorratu animaliak harrapatzeko, hartzen azalekin egindako berokiak...), arrantzaleak ez zuen barrura sartu nahi izan.

Hilabete batzuen buruan, beste itsasontzi bat agertu zen Alaskako kostaldean. Arrantzaleak ikusi zuen lehen unetik gustuko izan zuen itsasontzi hura eta, bertan sartu bezain pronto, egin zen hango arrantzaleen laguna. Gau hartan ekaitz ikaragarri batek arroketarantz eramane zuen baporea.

Kaioa hegan zihoan gordeleku baten bila eta arrantzaleak arriskuan ikusi zituen. Zitzu bizian joan zen pinguinoen bila eta guztien artean arrantzaleak uretatik ateratzea lortu zuten, ekaitzetik babesteko hondartzan zegoen kobazulo batean sartu ziren.

Arrantzaleak bere onera etorri zirenean, pinguinoei eta kaioari eskerrak eman ondoren, ospatu egin zuten guztiek.

*Borja Esnal. Herrio natur saria*



*Eider Urain*

# Aspiragailuak katarroa harrapatzen du

Bazen behin Marije izeneko ama bat. Badakizue nolakoak diren ama guztiak: dena txukun eta garbi eduki nahi dute etxean, bestela zigortu egiten zaituzte.

Asteburu batean, garbiketa egiten ari zela, aspiragailuarekin zerbait arraroa sumatu zuen Marijek eta bat-batean pfff! Hauts guztia bota zuen aspiragailuak. Eta orduan esan zuen:

—Aspiragailu nazkante, ero, tonto eta itsusi honek katarroa harrapatu al du?

Marije asko haserretu zen eta amorrus esan zuen:

—Badakit zer egingo dudana: zakarrontzira botako dut.

Orduan, gauza bitxia gertatu zen. Aspiragailua hizketan hasi zen:

—Ez! Ez! Ni ez bota zakarrontzira, ez! Itxaron egun batzuk eta sendatuko naiz.

Marije harrituta zegoen entzundakoarekin.

Bi aste egongo naiz eta, ez bazara sendatzen, txatarrategira botako zaitut.

Aspiragailua bere katarrorako erremedio bila hasi zen. Oinez zihoala, farmazia bat aurkitu zuen. Han pastilla bat eman zion botikariak; baina, berriro ere, pfff! egiten hasi zen. Farmazia guztia kakatan zerri eginda utzi zuen. Orduan, azkar atera behar izan zuen, bronka ez entzuteko.

Oso kezkatuta zegoen egunak aurrera zihoazelako. Jakin zuen homeopata batek oso ondo sendatzen zuela katarroa eta harengana joan zen. Iritsi zenean, homeopata esan zion ezin zuela aspiragailu bat aztertu. Hauts guztia homeopataren aurpegiari bota zion pfff! eztula egin zuen hurrengoan. Handik ere korrika atera behar izan zuen.

Eta, kalean barrena zihoala, txinatar propaganda bat ikusi zuen. Hau jartzen zuen: “Txinatar medikuntza onena da. Etorri Txinara eta sendatuko zaitugu berehala!”

Eta Txinara joatea erabaki zuen, txatarrategira botatzeko epea bukatzeko zegoela.

Txinan propagandan irakurritako aitona zahar jakintsu batengana joan zen. Eta hark esan zion:

—Txi-txi uatxi txuashi.

Aspiragailuak ez zuen ezer ulertzen. Azkenean, ikusi zion aitona “made in Spain” pegatina, eta aitona jakintsuak gaztelaniaz esplikatu zion Txinan aspalditik erabiltzen direla belar on batzuk, belar horiekin te bat egingo ziola eta te hori hartuz gero sen-



*June Arruti*


datuko zela. Aspiragailuari goiko tapa kendu eta handik sartu zion tea aitonak. Orduantxe egin behar zuen doministiku aspiragailuak; baina, pfff! egin beharrean, soinu goxo bat entzun zen eta hautsa ez zuen batere bota.

—Ikaragarria da! Ez nuke sinistuko! Benetan harrigarria da!

Oso pozik joan zen aspiragailua Txinatik. Eta juxtu ailegatu zen Marijek emandako epearen azken egunean. Marijek, konprobatzeko, aspiragailua erabili zuen eta orain ez du pfff! egiten eta ez du hautsik botatzen. Hautsa bota beharrean, usain goxoa botatzen du. Eta, hortik aurrera, etxea berarekin garbitzeaz gain, ambientadore bezala erabiltzen du aspiragailua Marijek.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Makatza-txikiko salan.

*Iñaki Sarasola*



*Jon Idarreta*

# Hegazkina banitz

Hegazkina banitz,  
txoriekin hitz egingo nuke.  
Txoriekin hitz egingo banu,  
arranoa litzateke nire lagunik onena.  
Arranoarekin hegn egingo banu,  
abiada handian ibiliko ginateke.  
Abiada handi horretan,  
mila leku ikusiko genituzke.  
Mila leku guztien artean,  
lagun asko egingo nituzke.  
Baina hegan ezin dudanez egin,  
ametsa ahaztu bitartean,  
hementxe nago poz-pozik  
nire betiko laguneren artean.

*Mikel Atxega*

# Kometa galdua

Kometa zeruan,  
ni jolasean,  
askatu egin da  
bat-batean.

Korrika joan naiz,  
harrapatu nahian,  
baina galdu egin da  
hodeien artean.  
Azkenean, ikusi dut  
zuhaitzen artean.  
Korrika nabil  
gelako nesken artetik;  
aurkitu dut,  
neska baten bihotzean,  
poztasuna.

*Ibon Valle*





Ruth Saez

# Leire eta bere laguna

Herri txiki batean bazen behin Leire izeneko neskatila bat. 10 urte zituen, beltzarana zen eta, hain beltzarana zenez, “Beltza” esaten zioten. Begiak itsasoa bezain urdinak eta politak zituen.

Beti jolasteko prest zegoen eta gehien gustatzen zitzaiona ezkutaketetan jolastea zen.

Bere anaiak 12 urte zituen eta beltzarana zen, begiak belarra bezain berdeak zituen eta batzuetan marroixkak bihurtzen zitzaizkion. Jolastea zuen gogoko eta kirol gustukoena futbola zuen.

Arratsaldean ezkutaketan jolastu ziren. Leirek ezkutatu egin behar zuen eta Ikerrek aurkitu egin behar zuen. Leire zuhaitz baten atzean ezkutatu zen eta bat-batean ahots bat entzun zuen:

—Nola duzu izena? —galdetu zion zuhaitzak.

Leire, harriturik, korrika joan zen bere anaiarengana eta esan zion:

—Badakizu zuhaitz batek hitz egin didala?

—Hori ez da posible. Bihar joango naiz zurekin, hori egia den ikustera —esan zion anaiak.

Gauean Leirek ez zuen ia lorik egin, oso kezkatu zegoelako.

Goizean Leire eta bere anaia joan ziren zuhaitza zegoen lekura.

Leirek hitz egiten zion, baina zuhaitza mutu zegoen.

Anaiak esan zion:

—Gezurra esaten ari zara! Hemen ez du inork hitz egiten! Banoa hemendik! Nola hitz egingo du bada zuhaitz batek...

—Baina atzo hitz egin zidan! Egia da! —esan zion Leirek.


Gauean Leire bakarrik joan zen zuhaitzaren inguruan eta hara! hitz egin zion:

—Hola, Leire!

—Baina... jakin al daiteke zein ari den hitz egiten? —galdetu zion Leirek.

—Ni naiz, zuhaitza, eta zurekin egon nahi dut!

—Zergatik hitz egiten duzu ni bakarrik nagoenean eta ez besteekin etortzen naizenean? —galdetu zion Leirek.



Ibai Tamayo

—Besteei hitz egiten badiet, zirko batera edo aztertzeke laborategi batera eramango naute eta ez didate bakean bizitzen utziko. Zuk, berriz, badakit naizen bezala onartuko nauzula.

Eta handik aurrera oso lagun onak izan ziren betirako eta elkarri laguntzen zioten beti: Leirek ura botatzen zion zuhaitzari, zuhaitzak itzala ematen zion Leireri...

*Ane Colado*

## Haritz eta Rocky

Bazen behin Haritz izeneko mutil bat. Ile horia eta begi urdinak zituen. 11 urte zituen Haritzek.

Animaliak asko gustatzen zitzaizkion, batez ere txakurrak. Betidanik nahi izan zuen txakur bat; baina bere amak ez zion uzten edukitzen, nazka ematen ziotelako txakurrek.

Amak, hau esaten zion beti: “Ilea botatzen dute, bihurriak dira, zikinak dira...”

Baina bere amak bukatu baino lehen, esan zuen Haritzek:

—Ama, hori zuri bakarrik iruditzen zaizu! Gainera, esan dituzun hitz itsusi horiek gezur hutsak dira, gezurrak!

Haritz korrika, haserreturik, bere gelara joan, bost minutu geldirik egon pentsakor eta, patinetea hartuta, herriko plazara joan zen, Orioko plazara.

Banku batean eseri eta negarrez hasi zen. Bere buruari egiten zion: “Ama eta ni zergatik gara hain desberdinak? Niri animaliak asko gustatzen zaizkit, batez ere txakurrak, eta berari ez, ez zaizkio gustatzen”.

Pentsakor jarri zen berriz eta, bat-batean, txakur zaunka entzun zuen. Atzera begiratu eta... txakur txiki bat zegoen abandonatuta. Txakurra txikia, beltza eta marroia zen. Isats luzea eta begi ilunak zituen.

—Txakur gaixoa! —esan zuen Haritzek.

“Niretzat hartuko dut eta garajea edukiko dut” pentsatu zuen. Orduan, txakurra hartu eta etxera joan zen. Komunera joan eta, bere amaren toalla eta otar bat hartuta, garajera joan zen.

Eseri egin zen eta bere txakurrari zein izen jarriko zion pentsatzen hasi zen:



*Unai Zabala. Herrio natur saria*

—Jarriko dizut... Rocky! Rocky izena jarriko dizut!

Haritz ez zen konturatu nolako bihurrikeriak egiten zituen txakurrak bere ikastolara joaten zenean. Rockyk, inor etxean ez zegoenean, besteen gelara sartu, zapatak atera eta koska egiten zien, lerdea utzita, eta, hori egin eta gero, beren terrazan zulo baten barruan gordetzen zituen. Gero, sukaldera joan, frigorifikoa ireki muturrarekin eta den-dena jaten zuen.

Ama berehala konturatu zen animaliarenekin bat zebilela etxean eta Haritzi esan zion txakur hori etxetik bidaltzeko. Baina Haritzek ez zion kasurik egin. Hori bai, bera ikastolara joaten zenean, garajeko atea ixten zuen, txakurrak etxe guztian bihurrikeriarik ez egiteko.

Haritzek bere amari esaten zion lagunekin gelditzen zela; baina gezurra zen, Rocky paseatzera ateratzen zuen.

Egun batean Haritzen amari lapur batek poltsa kendu zion eta marruka hasi zen. Handik gertu, Haritz patinetearekin eta Rockyrekin paseatzen zebilen. Haritz, patinete gainean, Rockyren lokarria patineteari lotu eta Rocky korrika joaten zen.

Rockyk salto txiki bat egin eta hegan atera ziren biak. Orduan konturatu zen Haritz Rocky hegoak zeuzkala. Bat-batean, amaren oihuak entzun zituzten eta Rocky hegan lapurraren atzetik joan zen eta lapurra harrapatu zuen.

Orduan, ama konturatu zen txakurrak ere lagungarriak eta maitagarriak zirela eta, geroztik, Rocky, Haritz eta bere ama poz-pez bizi ziren.

*Narrea Miralles*



*Ruth Atxega. Herrio natur saria*

# Maitasunak

Maitasunak eskatzen du  
maitatu behar dela gezurtia,  
baita ere faltsua,  
baina, tentuz!  
ez gezurra.

Maitasunak eskatzen du  
maitatu behar dela lapurra,  
baita ere kaltetua,  
baina, kontuz!  
ez lapurreta.

Maitasunak eskatzen du  
maitatu behar dela eroa,  
baita ere eroetxea,  
baina, erne!  
ez erokeria.

Maitasunak eskatzen du  
maitatu behar dela erailea,  
baita ere eraila,  
baina, adi!  
erailketa gorrotatzea  
eskatzen du Maitasunak.

*Maria Azkue*





*Alba Etzeberria*

# Zein eder

Zein zaidan eder elurra,  
zein eder eguzkia!  
are ederrago zait, ordea,  
hauek sortzen duten ura.

Zein zaidan eder ura!  
zein eder hotza,  
are ederrago zait, halere,  
hauek sortzen duten izotza.

Zein zaidan eder izotza!  
zein eder lainoa,  
are ederrago zait, ordea,  
hauek sortzen duten hezetasuna.

Eder zaizkit hezetasuna!  
eder, lainoa, izotza,  
hotza, ura,  
eguzkia eta elurra!

Eta eder, ederrenetan eder,  
hauen magalean errotuz  
beraien gainetik  
loratzen den bihotza!

*Mikel Ibarbia. Herrio natur saria*



*Sara Makazaga*

# Igeldoko itsasargia

Txurrukako hondartza ertzean nago,  
bakar bakarrik.

Aitaren baporeko aingura ekarri dit olatuak,  
bere xira horia kaioak,  
bere irribarrea zerumugak.

Baina aita ez da agertu.


Igeldoko itsasargiak  
argitu dit  
berak utzitako iluna.

Igeldoko itsasargiak  
bete dit  
berak utzitako hutsunea.

*Andoni Uranga*

## Natura festa

Lusarbe Erdi baserria 1548. urtean sortu zen Orion. Hasiera-hasieratik, nire arbasoek lorategi eder bat atondu zuten baserri ondoan, eta gaur egun bertan jarraitzen du beti bezain polit eta eder. Niretzat lorategia oso toki berezia da: bertan jolasten naiz lagunekin, bertan aritzen naiz lanean aitona-amonekin, bertan asko gozatzen dut... lorategiak bizi poz handia ematen dit. Sarreran harrizko arku bat dago. Aitonak askotan kontatzen du Kukuarri ingurukoak direla harriak, eta arkuaren erdian egurrez egindako lauburu bat dago; ondoren, hamar bat metrora, landare multzo bat dago, Antilla hondartzatik hartutako harri biribilez inguraturik; nigatik, margotu egingo nituzke harri txoak, baina amona Mikaelak ez du entzun nahi halakorik; atzeraxeago, urmael xar-mangarri bat, txabolatxo batekin, eta bertan hiru zisne bizi dira; urak garbi-garbi egoten dira eta udan askotan jolasten naiz bertan Ixone, Kattalin eta Teresa zisneekin. Lorategiaren eskuinaldean bi sagarrondo eta hiru pago daude; inguruko eserlekuetan aritzen dira berriketan etxeko nagusiak; ezkerraldean, berriz, mota askotako loreak, bidaietatik ekarritakoak asko eta asko. Aitonak erlategi bat ere badu, baina niri erleak beldurra ematen didate eta ez naiz asko hurbiltzen berengana. Urtero, udaberria iristen



*Josn Saez*

denean, lorategitik eskutitz bat jasotzen dugu; inguruko baserriek ere jasotzen dute eskutitza. Aurtengoak honela zioen:

“Beste behin ere, iritsi dira gure zaindari udaberria gurtzeko egunak. Dakizuenez, guretzat oso egun garrantzitsuak izaten dira; horregatik, zuekin konpartitu nahiko genituzke. Hori dela eta, hurrengo larunbatean, goizeko hamarretan izango den txupinazora gonbidatzen zaituztegu; ondoren, bazkari herrikoia egingo dugu eta, arratsaldean, Gozategirekin dantzaldia izango da. Hantxe egongo gara zuen zain.”

Gure zaindariak San Nikolas eta San Pedro diren bezala, Lusarbe baserriko lorategiaren zaindaria Udaberria da. Urtero-urtero jasotzen dugu gonbitea eta hutsik egin gabe joaten gara gu geu eta inguruko baserrietako guztiak. Aurten martxoaren 21ean hasi ziren festak. Ixone zisneak bota zuen txupina, zeren igeriketan Euskal Herriko marka hobetu zuen urte hasieran. Ondoren, landareek danborrada prestatu zuten, eta lorategiari bira osoa eman zioten erleek osatutako txarangaz lagunduta. Zuhaitzak zeuden inguruan, Kattalin eta Teresa zisneek hamaiketako prestatu zuten, salda eta haragi egosia:

—Zer ondo sartzen den salda ordu hauetan! —esan zuen amona Mikaelak.

—Bai, ni salda zale amorratua naiz —erantzun zion Iturriondo baserriko Mariak.

Han geundela, Egaña eta Lizaso bertsolariak hasi ziren bertsotan: Udaberria zaindaria zela, Ixoneren marka zela, erleen gorabeherak, loreen artean izandako liskarrak... lorategiko txutxumutxu guztiez enteratu ginen. Ordu biak aldera, loreek prestatutako bazkariak dastatzen hasi ginen:

—Aizan, Katta! Oso polita hago soineko horrekin! —esan zion Axel pagoak gorri koloreko arrosa bati.

—Katta! Ogia falta dun hemen —oihu egin zion nire aitona Tomasek.

—Leire! Lagundu, mesedez! Ez naun iristen-eta! —esan zion Kattak bere lagun-minari.

Loreak sukaldari bikainak ziren; gainera, aurten Argiñanoren eskolan izan ziren ikastaro bat egiten, eta bazkaria beste urtetatik desberdina izango zela esan ziguten. Niri, gehien, postrea gustatu zitzaidan: kokozko tarta mundiala zegoen! Kafea edaten ari ginen bitartean, Ficus batek Mikel Laboaren abestien letrak banatu zituen:

—Orain abestu egingo dugu Mikelen omenez —esan zuen Aitor izeneko Ficus landareak.

Zazpiak arte aritu ginen kantuan; gehien kantatu genuen abestia Txoriak txori izan zen. Ondoren, Gozategirekin dantzan geratu gabe aritu ginen, eta hamabiak aldera, helduenak etxera joan ziren eta gazteak urmalean bainatu ginen, urtero bezala. Ordu biak aldera, Maddi krabelinak prestatutako txokolatea jan eta etxera abiatu ginen:



*Aitor Santamaria*

—Hurrengo urtera arte! —esan genien lorategiko biztanle guztiei.

—Beno, Oihana! Zuri bihar arte —esan zidan Teresa zisneak.

—Bihar arte!

Hurrengo egunean, lorategian agertu nintzenean... den-denak lo zeuden:

—Zer demontre! Ez ditut molestaturko. Jarrai dezatela lotan!

*Maria Azkue. Herrio natur saria*

## Maritxu eskolara doa

Bazen behin Maritxu izeneko neskatila bat, 10 urte zituena. Bizkaitik Oriora etorri berria zen eta eskolan hasi behar zuen. Eskolan hasi zenean, denek burla egiten zioten. Gelako neska harroenak barre egiten zion:

—Maritxu piritxu, joan zaitez tren txu-txu! Kar, kar, kar!

Behin, errekreora atera zenean, ogitartekoa kendu zion mutil batek eta, denen aurrean barre eginez, ogitartekoa jan zion.

Arratsaldean etxera iritsi zenean, atsekabetuta zegoen. Ama ikusi zuenean, negarrez hasi zen eta dena kontatu zion. Amak ez egiteko kasurik esan zion. Hurrengo eguneko errekreoan, berriz burlakor hasi ziren eta ez zien kasurik egin, baina arratsaldeko azkeneko orduan, irakasleari galdera bat egiteko altxa zenean, aulkian txintxeta bat jarri zion bere ondokoak eta eseri zenean:

—Ai!

Txintxeta ipurdian sartu zitzaion, eta denak barrez hasi zitzaizkion.

Berriz ere etxera negarrez eta lotsa-lotsa eginda iritsi zen eta amak galdetu zion ea zergatik ari zen negarrez. Maritxuk gertatutako guztia kontatu zion.


Denbora asko pasatu zuen horrela: egunero zerbait egiten zioten eskolan eta baka-  
rrik, triste eta atsekabetuta zegoen.

Egun batean, eskolara joan zenean, gelako neska harroena gerturatu zitzaion eta harro-harro esan zion:

—Pena ematen didazu!

Eta Maritxuk erantzun zion:





Nahia Agudo

—Zuk niri gehiago! Harroputz bat zara eta lagunik gabe geratuko zara!

Eta bere bistatik alde egin zuen Maritxuk.

Hurrengo egunean berriz ere entzun behar izan zuen:

—Maritxu piritxu, zoaz tren txu-txu!

Eta Maritxuk erantzun zion:

—Isildu zaitetz, harroputz hori!

Eta biak borrokan hasi ziren. Halako batean, irakasleak gerturatu ziren biak banatzera. Arratsaldean Maritxu etxera joan zenean, triste zegoen borrokan egin zuelako, baina pozik ere bai fronte egin ziolako neska harroputzari.

Hurrengo egunean denak isilik egon ziren behingoz, Maritxu errespetatuz. Eguerdian azterketa izan zuten eta oso pozik zegoen, bikain bat atera zuelako. Aste bete pasa ondoren, gelako harroena izan ezik, denak Maritxuren lagunak egin ziren eta denak gelako neska harroari burla egiten hasi ziren:

—Harroputza! Tonta!

Harroputza triste zegoen. Bakarrik sentitzen zen eta laguntza eskatu zion Maritxuri eta Maritxuk esan zion:

—Orain egon sufritzen! Horrela ikasiko duzu!

Maritxu oso pozik zegoen eta etxera iritsi zenean, amari kontatu zion gertatutako guztia. Ama ere pozik zegoen, baina ez zitzaion gustatu harroputzari esan ziona. Hurrengo goizean, Maritxuk harroputza bakar-bakarrik ikusi zuenean, pena eman zion eta adiskidetu egin ziren. Baina, handik bi asteetara, berriz haserretu ziren eta egunero zituzten arazoak: borrokak, hitz itsusiak, begiradak...

Arratsalde batean, harroputza etxera zihoala, auto batek harrapatu zuen.

Maritxu, eskolara joan zenean, jakin zuen harroputzari gertatutakoa eta larritu egin zen. Handik astebetera eskolatik irten zenean, ospitalera bisitatzera joan zen. Harroputzak Maritxu ikusi zuenean, hunkiturik geratu zen eta hortik aurrera lagun minak izan ziren.

*Aitor Elizalde*



*Mikel Amilibia. Herrio natur saria*

# Xabi itsasoan

Bazen behin Itsasburuan bizi zen 12 urteko mutil bat, Xabi izenekoa. Xabi ausarta, egoskor xamarra, jakin min handikoa, alai eta traketsa zen. Bere ilea, kolore marroikoa zen, begi handi eta marroiak zituen eta ezpainak ez zituen oso txikiak. Bere lagunekin konparatuta, nahiko txikia zen; baina, eskolara joaten ez zenez, berari ez zitzaion axola.

Xabiri ikaragarri gustatzen zitzaizkion itsasontziak, arrantza egitea eta, batez ere, leku berriak ezagutu eta jende berriarekin topatzea.

Xabik egunero joan nahi izaten zuen portura; baina gurasoek ez zioten uzten, igeri egiten ez zekielako.

Behin amak esan zion:

—Xabi! Hartu diru zorroa eta zoaz erosketak egitera.

Xabik pentsatu zuen, erosketak egitera irteten zen bitartean, portutik pasako zela, eta poz-pozik atera zen diru zorroa hartu eta erosketak egitera.

Portura iritsi zenean, harriturik oihuka hasi zen:

—Zenbat itsasontzi, zenbat kaio! Eta andere horiek zer egiten ari dira?

—Andere horiek gure sareak josten dituzte —erantzun zion arrantzale batek.

Eta Xabi poz-pozik iritsi zen etxera, inori portura joan zela esan gabe.

Etxean aita eta amona mahaia prestatzen ari ziren eta ama, afaria. Afaldu ondoren, egunero bezala, aitonak bere gaztetako arrantza kontuak kontatu zizkion familia osoari; Xabi zen interes gehien jartzen zuena.

Bi urte igaro ondoren, Xabik hamalau urte bete zituenean, itsasontzi txiki bat oparitu zioten, eta noski, pozez txoratzen jarri zen.

Bere aitona arrantzalea zen, eta baita bere aita ere, baina Xabik ez zuen arrantzale izan nahi. Berak nabigatzailea izan nahi zuen, eta aitak ikastaro batzuk eman zizkion nabigatzaile izateko.

Xabi trakets samarra zenez, bere aitaren ikastaroak bi urte iraun zuen. Baina, azkenean, lortu zuen; antzematen zen Xabik gogo betez ikasi nahi izaten zuela.

Halako batean, Xabik erabaki bat hartu zuen. Munduko toki guztietara iritsi nahi zuen itsasontziz. Aitak, broma bat zelakoan, jaramonik egin gabe esan zion:

—Xabi, bota aingura eta goazen etxera, bazkaria prest egongo da eta —eta Xabik halaxe egin zuen.



*Paula Argintxona*

Xabik janaria, ura, arropa eta beharrezkoak ziren tresna guztiak prestatzen eta itsasontzian sartzen joan zen eta, aste bete pasa ondoren, aitona, ama eta aitari honela zuzendu zitzaien:

—Munduko toki guztietara iritsi ondoren etorriko naiz. Eta, agurtu eta gero, bere bidaia hasi zuen.

Xabik Mexikon egin zuen lehendabiziko geldialdia. Portura iritsi orduko, bere adineko mutil bat urreratu zitzaion. Xabik arraro samar begiratu eta esan zion:

—Kaixo, hemengoa al zara? Nik Xabi izena dut eta zuk?

Mutikoa harriturik geratu zen, mutil euskaldun bat Mexikon bakarrik ikusita.

—Ka, ka, kaixo! Nik Juan izena. Nire ama euskalduna izan, baina nire aita eta ni ez; horregatik, nik horrela hitz egin —eta bere etxera gonbidatu zuen bazkaltzera.

Juanen ama Maiteri Xabi mutiko atsegina iruditu zitzaionez, galdetu zion ea beren etxean lo egin nahi zuen. Xabik nahiago izan zuen etxe batean lo egin itsasontzi txiki hartan baino eta baietz esan zuen.

Hurrengo egunean, Juan, Maite eta Xabi, Maien Etxe, Piramide eta zenbait museo ikustera joan ziren; Xabi jakin min handikoa zenez, horrelako gauzak izugarri gustatzen zitzaizkion eta bi aste igaro zituen Mexikon, Juanen familiari etxeko lanak, erosketak eta bestelako zereginak egiten laguntzen zion bitartean.

Hurrengo geldialdia, kostata, baina Ginean (Afrikan) egin zuen. Xabiren bidaia nahiko gogorra izan zen, alde batetik, itsasoa nahiko zakar zebilelako eta, beste aldetik, oso janari gutxi geratzen zitzaiolako. Baina iritsi zen, azkenean.

Portuan zela, jende guztia urreratzen hasi zitzaion eta denak txutxu-mutxuka hasi ziren:

—Nor ote da marinel txiki hau? Zertan ari da hemen? Zenbat urte ote ditu? —eta, halako batean, Xabi erdi negarrez hasi zen:

—Nik Xabi izena dut eta 14 urte ditut. Goseak nago eta zerbait jan nahi dut.

Orduan, emakume bat gorilatxo txiki batekin urreratu eta esan zion:

—Ni Joana naiz. Nahi baduzu, etorri zaitezke nire etxera, afaria prest daukat-eta. Zuk nahi izanez gero, ohe bat ere badaukat.

Xabik aitortu behar izan zuen beldur pixka-bat ziela gorilei, baina Joanak lasaitu zuen, eta Xabi haren etxera joan zen. Oraingoan ere, Xabik nahiago izan zuen etxe batean lo egin eta etxe hartan geratu zen.

Hurrengo egunean, Xabik eta Joanak gosaltzen zuten bitartean, eguneko plana pres-tatu zuten:



*Enara Larreta*

—Xabi! Datorren bost egun hauetan zure gorilenganako beldurra gainditzen saiatuko gara, eta nik lagunduko dizut.

Bost egun igaro ondoren, Xabiren beldurra joan ote probatzeko, mendira joan ziren Xabi eta Joana. Xabik ikaragarri ondo pasatu zuen mendian, beldurrik izan gabe. Beste batean, Xabi bakarrik joan zen mendira, baina bide ertz batean gorila txiki txuri bat bilatu zuen. Gorila besoetan hartu eta Joanaren etxera joan zen korrika bizian. Joana harrিতuta geratu zen gorila txuri bat ikustean eta berak eskaini zuen bere burua bi gorilak zaintzeko.

Xabik bere bidaiara jarraitu nahi zuen, behar adina janari hartu eta itsasoratu egin zen.

Xabi Australiara iritsi zen. Hango eguraldia ez zen Mexikokoa eta Gineakoa bezain ona. Hango eguraldia nahiko txarra zen, eta jende guztia korrika zebilen, normala baino erosketak gehiago egiten, etxeetako leihoak egur oholekin ixten... Halako batean, mutil bat hurreratu eta esan zion:

—Hartu zure itsasontzitik behar dituzun gauza guztiak eta zatoz nire atzetik —eta Xabik halaxe egin zuen. Gero, etxe batera sartu eta ate guztiak ixten hasi ziren.

—Zer gertatzen da hemen? Zergatik ari dira denak korrika eta presaka erosketak egiten? Zergatik daude ate eta leiho guztiak itxita?

—Kaixo! Nik Daniel izena dut eta nire aitonak dio gaur gauean urakana etorriko dela Australiara. Horrexegatik ari dira denak oihuka, erosketak ahal diren azkarren egiten eta leiho eta ate guztiak oholez ixten. Gaur ezin izango duzu zure itsasontzian lo egin. Gurekin egin beharko duzu gaur lo eta, agian, baita bihar ere.

Gaua ikaragarria izan zen eta goizean kale guztiak blai eginda agertu ziren, tabernetako aulkiak denak apurtuta, zuhaitz batzuk haizeak eramanda; baina ez zen inor zauritu. Gure Xabiren itsasontzia, ordea, hondoratu egin zen. Xabik ez zekienez, kalera irten ziren jolastera.

Daniel herrikoia zen eta jende guztiaren laguna zen eta Xabiri aurkeztu zizkion. Xabik pentsatuta zeukan Australian bi-hiru aste egotea; baina lehendabizi bere itsasontzia ikusi nahi zuen:

—Non dago nire itsasontzia? Zer gertatu zaio?

Danielek azaldu zion urakana izango zela; baina Xabik ez zion kasurik egin eta Danielen etxera joan zen. Danieli pena pixka bat eman zion Xabik eta ezagutzen zuen jende guztiari azaldu zion zer pasatzen zitzaion. Orduan, beste itsasontzi bat egitea otu zitzaion herriko jendeari eta Xabirengana joan ziren:

—Xabi, zer iruditzen zaizu gu guztiok beste belaontzi txiki bat egiten badizugu?

Xabi harrিতuta geratu zen hori entzutean eta aurpegia alaitu zitzaion:





*Ignazio Zaldúa*

—Mila esker, oso ondo iruditzen zait —eta belaontzi txiki hura egiten bi aste pasa zuten. Xabiri agur esateko ordua heldu zitzaion eta halaxe esan zuen:

—Mila esker guztioi, belaontzia egin eta egin ez didazuenoi! Agur! —eta joan egin zen.

Xabik sei hilabeteko bidaia egin zuen eta, azkenean, Itsasburura iritsi zen:

—Kaixo! Ba al da norbait etxean? —esan zuen eta, noski, ama korrika bizian joan zen Xabirengana:

—Kaixo, seme! Zer moduz zure bidaia? Ondo al zaude? Ze, iritsi al zara munduko toki guztietara? —galdetu zion aitak.

—Munduko toki guztietara ez, baina bai Mexikora, Gineara eta Australiara eta, han nengoen bitartean, urakana pasa zen eta, ondorioz, itsasontzia hondoratu egin zitzaidan, baina bertakoek belaontzi bat egin zidaten.

Eta gau hartan Xabi izan zen bere istorioa kontatu zuena.


Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan.

*Leire Izagirre*

## Maitea

Festa batera  
noa ni gauez,  
soineko batekin  
beteta lorez,  
baita bihotza  
beteta pozez,  
zure besoen  
artean parrez.

*Izaro Houghton*



*Mikel Uranga eta Mikel Borda*

# Txoriak zeruari

Txoriak zeruari:  
Zu zara nire bizileku,  
euria nahiz eguzkia,  
elurra nahiz kazkabarra.  
Hegan egiten dudan bakoitzean,  
zu laztantzen zaitut,  
urdina edo beltza,  
oskarbi edo lainotu,  
itsasoarekin egiten duzun muga  
zu bezain ederra da.


*Maialen Rodriguez*

# Basoko abentura

Bazen behin neska bat, Lara izenekoa. Zortzi urte zituen. Ilea gaztaina kolorekoa zuen, begiak urdin grisak eta azala zuria. Nahiko argala zen eta altuera normalekoa. Oso irekia zen jendearekin eta nahiko abenturazalea. Baso baten ondoko etxetxo batean bizi zen eta, bidetxo bati jarraituz, bere herrira iristen zen. Larari gehien gustatzen zitzaiona bere lorategian egotea zen, loreak biltzen eta tximeletei begiratzen. Egun batean, eguraldi ona egiten zuenez, basora joatea pentsatu zuten Larak eta bere gurasoek. Aitak marmelada poto hutsak eta tximeletei buruz zuen liburua hartu eta tximeletak aztertuko zituztela esan zion Larari. Hau asko poztu zen. Amak askarirako marrubizko marmelada eta tostadak hartu eta han joan ziren, bakoitza kristalezko tarro banarekin. Larak tximeleta marroi bat ikusi zuen eta konturatu zen aitaren liburuan agertzen zena bezalakoa zela eta, orduan, haren atzetik joan zen. Hainbeste urrunduzenez, gero ezin zituen gurasoak aurkitu. Garrasika hasi zen gurasoei deika, baina alferrik. Zuhaitz baten ondoan eseri eta negarrez hasi zen. Handik pixka batera, zuhaixken atzean beregana zetorren zerbait ikusi zuen. Aurrena, bere gurasoak zirela pentsatu zuen; baina gero pentsatu zuen, bere gurasoetako bat balitz, deituko ziola. Beldurtu eta builaka hasi zen, eta gutxien espero zuena zen: otsoa.

—Mesedez, ez nazazu jan! —esan zion Larak, nahiz eta jakin ez ziola ulertuko. Beno, hori uste zuen, behintzat.

—Lasai, neskatxa! Badaude gauza goxoagoak. Adibidez, sagar zukua, entsalada eta hor aurrean aurkitu dudan marmelada. A! Eta badaezpada esaten dizut: Ni begetaria-



*Jaione Illarramendi eta Sandra Ramos*

noa naiz, nire familia guztia bezala. Badakizu, animaliak ez ditugu jaten, nahiz eta otsoek bestelako fama izan...

—Bai, bale! Ulertzen dut! Non esan duzu aurkitu duzula marmelada? Ez zen, ba, nire amarena izango?

—Ba, uste dut baietz, zure begi berdinak dituelako emakumeak. Baina, zoritxarrez, etxerako bidean zihoazen eta, ez dakidanez non dagoen zure etxea, zergatik ez zara etortzen nirera?

—Ongi dago! Goazen!

Enbor batean ondo kamuflaturik, ate moduko bat ikusi zuen Larak. Hura zen otsoaren etxea eta... ze etxea! Oso polita zen. Gizakiarentzat eginda ematen zuen: tximinia bat zuen, aulkiak, oheak... Otsoak bere familia aurkeztu zion:

—Hau nire ama da, hau nire aita, hau nire emaztea... eta, azkenik, Robert untxia, nire lagun mina. Elkarrekin ari gara kasu bat aztertzen.

—Kaixo, Lara! Nahi baduzu, bihar etor zaitezke gurekin basora eta elkarrekin gauzak aztertu ditzakegu —esan zion Robertek.

—Oso ongi iruditzen zait! —erantzun zion Larak.

—Beno, orain zerbait jan eta zoazte ohera —esan zien otsoaren amak.

Hurrengo goizean basora abiatu ziren Lara, Robert eta otsoa. Robertek azaldu zion Larari norbait zebilela basoko sendabelar guztiak hartzen, eta animalien medikua zen hartzak ezin zituela sendabelar asko aurkitu.

—Plan bat egin beharko dugu, zein den jakiteko —esan zuen Larak.

—Bai. Hori pentsatu dut gauean eta bururatu zaidan plana martxan jartzea erabaki dut —esan zuen otsoak.

—Kontatu, ba, plana! —esan zuten Robertek eta Larak batera.

Aurkitu zituzten aztarnengatik, bazekiten gizaki bat zela. Basoan toki batean senda belar asko zegoen eta, hango animaliek ziotenez, horra agertzen zen azkenaldian.

Orduan, otsoak bere plana kontatu zien: Lara belarren atzean ezkutatuko zen eta, lapurra han zela sumatzen zuenean, negarrez balego bezala hasiko zen. Orduan, lapurrari gose zela esango zion eta, bere etxera eramaten bazuen, jakingo zuten non bizi zen.

Hurrengo goizean bertan hasi ziren planarekin. Lara landareen atzean ezkutatu bezain laster etorri zen lapurra. Negarrez ari balitz bezala hasi zen.

—Baina zen gertatu zaizu, neskaxa? —galdetu zion lapurrak.



*Maialen Rodriguez eta Jaione Illarramendi*

—Ba, galdu egin naizela eta hotzak eta goseak nago.

—Benga, altxa zaitez eta nire etxera eramango zaitut. Hori esan bezain laster, txanoa kendu zuen lapurrak eta aurpegia ikusi zion. Herriko medikua zen-eta!

—Mediku jauna! Zer egiten duzu hemen?

—Kaixo, Lara! Sendabelarrak behar nituen. Guztiak agortu zaizkit eta hemen hainbeste daude! —erantzun zion medikuak.

—Bai, asko daude, baina basoko animaliek ere behar dituzte, eta zu guztiak hartzen ari zarenez, beraiek gabe geratzen ari dira —esan zion Larak.

—Ba, egia da. Ez nuen pentsatzen horretan! Eramaten banauzu animalia batengana, adostuko dugu guztia!

—Ongi dago. Goazen nirekin!

Otsoarengana eraman zuen eta hitz egin zuten.

Azkenean, adostasun batera iritsi ziren, eta medikuak eskerrak eman eta bere etxera abiatu zen pozik.

—Zen adostu duzue, ba? —galdetu zion Larak otsoari.

—Landareen eremua bitan banatu dugu eta hitz eman dugu behar duguna bakarrik hartuko dugula bai animalioek eta bai gizakiok. A! Eta zure etxea non dagoen aurkitu dugu; beraz, gaur bertan itzul zaitezke etxera!

—Eskerrik asko, otsoa eta beste guztiak! Etorriko naiz bisitan!

Arratsalde horretan itzuli zen Lara etxera:

—Lara! Hemen zaude-eta! Non egon zara?

—Basoan egon naiz, ama!

—Eskerrak ondo zauden! Ez dakizu ze kezkatuta egon garen! —esan zion, pozez, aitak.

—Baina zeinekin egon zara? —galdetu zioten biek batera.

—Lagun batzuekin, baina, utz ezazue...

Horregatik, basora joaten zaretenean, ez hartu senda belar gehiegi eta utzi batzuk basoko animalientzat.

*Izaro Houghton*





*Eider Arruti eta Olatz Lukas*

# Natura eta animaliak

60ko hamarkadan animaliak eta pertsonak beti haserre ibiltzen ziren eta ezin zuten batak bestea ikusi. Dena pertsonak natura ez zutelako errespetatzen zen eta dena kutsatzen zutelako.

Egoerari ezin zioten aurre egin eta, orduan, gaizki sentitzen ziren animaliak. Pentsatzen eta pentsatzen *hippy* bati ideia hau otu zitzaion:

—Badakit! Eusko Jaurlaritzara joango gara, han konpontzera!

—Bai! —esan zuen inguruko animalia batek.

Eusko Jaurlaritzara ailegatu eta Patxi Lopezekin hitz egin zuten. Patxik esan zuen ezin zuela gauza askorik egin, jendeak ez zuelako laguntzen, eta orain ez zegoela horretarako eta beste norbaiti esateko berari esan zioten guztia. Baina ideia bat otu zitzaion Patxiri: bere idazkariarekin hitz egiteko eta hitzordua hartzeko.

Orduan, Agenda 21 asmatu zuten eta jende asko joan zen bilerara. Jendeak Agenda 21 ikastola eta eskoletan jartzea proposatu zuen eta bai lortu ere! Orain Agenda 21 leku guztietan dago; baina, oraindik, jende asko ez dago guztiz konbentziturata proiektu berri honekin eta Agenda 21ekoek ez dakite zer gehiago egin beste jendea guztiz konbentzitzeko.

Beraiek ez zekiten, baina batzuk gauza txarrak egitera daude ohituak eta horiei gauza onak egitea jarri behar zaie buruan.

Azkenean, ailegatu zen Patxirekin hitz egiteko eguna. Hasi zirenean hitz egiten, izugarrizko hitzaldia bota zuen *hippy* batek eta Patxi konbentzitu zuen pixka bat. Horrela ari zen hitz egiten hippya:

—Zaborra ez da bota behar, nahiz eta oso zaila izan. Azken finean, zaborra lurrera botatzen badugu, denok izorratzen gara; batez ere, botatzen dutenak beren herrian botatzen baitute batik bat. Azkenean, zabortegeiak alferrik egiten dira eta aldamenen bizi direnak kaltetu egiten dira. Eta, batzuetan, hil egiten dira; horregatik da oso garrantzitsua zaborra ez lurrera botatzea.

Patxik, harriturik, zin egin zuen, *hippy*ari arrazoi emanaz.

—Ni saiatuko naiz; baina ez diot horrelako garrantzirik emango kontu honi. Hala ere, saiatuko naiz goikoekin hitz egiten; baina, ezin bada, ezin da —horrela hitz egin zuen Patxik.

Patxik, azkenean, zinegotziekin hitz egin eta baietz esan zuen: erabaki zuela eta Agenda 21 Euskal Herri guztian zabalduko zela.



*Izaro Houghton. Herrio natur saria*

Joxek eta bere lagunek ez zekiten zer egin eta zin egin zuten zabor gutxiago botako zutela; baina Joxek oraindik zaborra barra-barra botatzen du, baina ari da zuzentzen.

Joxe konbentzitzen ari zen, baina zuek badakizue ze zaila den zaborra lurrera ez botatzea. Zaborrontzira botatzea ere ez da zaila, ordea. Beno, aditu nola esan zuen Eider izena duen Agenda 21eko neska:

—Zaborra oraindik ere nik ere botatzen dut pixka bat lurrera; baina ez lehen botatzen nuen bezala, baizik eta askoz gutxiago. Nik uste dut berdin-berdin kostatzen dela lurrera bota beharrean, zakar ontzira botatzea, eta hori denentzat doa. Bai Joxek eta bai denok osasunez ondo ibiltzeko. Bestela, denok egun batean oso gaizki jarriko gara.

Azkenean, dena ondo irten zen eta denak gustura geratu ziren. Joxe konbentzitututa geratu zen eta Agenda 21aren bidetik jarraitu zuen. Ikastoletan-eta oso gustura zeuden. Euskal Herrian inork ez du kutsatzen eta, orain, astero bilera egiten dute herri bakoitzean.

*Aitor Larraza. Herrio natur saria*

## Zuhaitz berezia

Gipuzkoako herri batean bizi zen mutiko bat, Erik. 11 urte zituen, begi marroiak eta ile horia zuen. Bere lagunik onenak Mikel eta Pablo ziren. Arreba bat zuen, Alba, 6 urtekoa, eta anai bat, 2 urtekoa, Alex. Asko gustatzen zitzaion futbola eta mendira joatea bera bakarrik. Mendian lagun bat zeukan, baina hori sekretua zen. Ez zen lagun normala, besteak bezalako, baizik eta ehun urte zituen zuhaitz bat. Zuhaitza berezia zen: ahoa, sudurra, belarriak eta begiak zituen, guk bezala. Erikek zuhaitzari Ruli deitzen zion. Erik egunero joaten zen zuhaitza bisitatzerara. Atsegin zuen. Istorioak kontatzen zizkion Rulik Eriki, ehun urte horietan gertatutakoak. Egun batean Rulli hasi zen kontatzen:

“Lehen, ez ziren orain bezainbeste kotxe pasatzen; lehen, zaldiak eta gurdiak pasatzen ziren. Orain, gau eta egun kotxeak eta motorrak bakarrik entzuten dira eta kontsumitu besterik ez dute egiten. Egun batea, horko baratzeko jauna zenak kotxe bat erosi zuen eta, hortik aurrera, gehienak kotxearekin ibiltzen dira. Hemen aspalditik bizi den agurea lasai asko zegoen loreekin; bere txakurra paseatzen ari zen eta bruumm! kotxe bat pasa eta harrapatu zuen; eskerrak ez zen hil, baina... ederra sustoa! Lehen denak lasai asko paseatzen zuten; baina, orain, kotxeekin eta motorrekin... kontuz ibili behar da”

—Arrazoi duzu Ruli! Gehiegi kontsumitzen dugu.



*Alazne Arruti*

—Kutsatzeak arazo handiak sortzen ditu. Nik ikusi dudanez, zuhaitz eta lore asko hil dira.

—Bueno, Ruli! Joan beharra daukat. Bihar etorriko naiz bisitatzera! —esan zion Erikek.

Erik etxera iritsi zenean, amok galdetu zion:

—Non ibili zara, Erik?

—Lagunekin plazan.

—Erik! Orain joan beharra daukagu aitak, Albak eta hirurok. Zaindu ezazu Alex! Agur! —esan zion amak goxo-goxo.

Alex hasten zen beti:

—Ipuinak, Erik, ipuinak!

Erikek ez zekien zer kontatu. Orduan, Rulik kontatutako istorio bat kontatzen hasi zen:

“Bazen behin Ruli izeneko zuhaitz bat. Egun batean, gizon batzuk joan ziren zuhaitza moztera, baina mendiko animalia guztiak konturatu ziren. Hara joan ziren eta ez zieten utzi Ruli mozten. Hortik aurrera, inor ez da joan Ruli moztera”.

Alexi asko gustatu zitzaion ipuina eta, gurasook etorri zirenean, Alex hasi zen:

—Ruli! Ruli!

—Erik! Zer edo zein da Ruli?


—Ez dakit, ama —esan zuen Erikek.

Hurrengo egunean, Erik joan zenean Ruli bisitatzera, hostoak falta zitzaizkion: Rulik esan zion beste bi egun itxoin egingo zutela zer gertatzen zen jakiteko. Bi egun horietan belarri bat eta begi bat desagertu zitzaizkion, eta, orduan, Rulik esan zion:

—Erik, hau dena kutsadurarengatik ari da gertatzen. 5 egun baino lehen, ahoa desagertu baino lehen, belar mota bat ekarri behar didazu; bestela, hil egingo naiz. Baina belar hori Pirinioetan bakarrik dago.

—Bale. Eskerrik asko, Ruli.

Erik saiatu zen ahal zuena egiten eta, azkenean, lortu zuen konbentzitzea ama eta aita Pirinioetara joateko kanpinera. Baina arazo bat zegoen: zortzi egunetarako zihoa-zen eta bost egunetarako Erikek Rulirengana itzuli beharra zeukan. Irtsi zen eguna Pirinioetara joateko eta, iritsi zirenean, kanpina altxa zuten. Gurasoek siesta egin bitartean, Erik mendira joan zen. Han aurkitu zuen behar zuen belarra eta eramandako kaxatxoan gorde zuen. Dena listo zegoen, baina nola lortuko zuen laugarren egunera-



*Olatz Lizaso*

ko etxean egotea, gero bosgarrenean mendira Rulirengana joateko? Erik pentsatzen hasi zen eta... tak! ideia bat bururatu zitzaion.

Laugarren egunean Erikek bazekien zirimirri egingo zuela. Orduan, kanpinari zuloak egin zizkion eta kanpin dena busti egin zen. Gurasoek esan zuten etxera bueltatuko zirela. Etxera iritsitakoan, zuzenean mendira joan zen belarrarekin. Ruli ikusi zuenean, begi bat eta ahoa bakarrik zituen. Belarra eman zion, 2 minutu itxoin eta berriro ondo-ondo jarri zen.

Rulik eskertu zion Eriki egindakoa eta, hortik aurrera, poz-pezik bizi izan ziren. Behin belar hori hartuta, ezin zuen berriro gaixo jarri. Erikek 12 urte egin zituenean, lagunekin ospatu beharrean, Rulirekin ospatu zuen.


*Jone Moran*

## **Jaitsi zaitez mundura**

Zerura begiratzen dudan bakoitzean  
zure begirada ikusten dut han  
hodeiertz ilunean.  
Hurrengo egunean  
itsasoaz idatziko dut  
bera baita bizi poza ematen didana  
eta horrek argitu egiten nau.  
Hauxe da mundu zoroa  
batera begiratzean, pena;  
bestera, berriz, poza.  
Etor zaitez nigana  
labarretan behera,  
ez gelditu han  
isurtzen pena.  
Jaitsi zaitez  
familiakoen artera,  
haurren ezpagnetara,  
beraiek emango baitizute  
poza ederra.

*Intza Unanue*





*Maidier Manzanas*

# Ainitzewoman eta Neguman


Kaixo, Maitane naiz eta hona etorri naiz aspaldi xamar gertatutako istoriotxo bat kontatzera. Istorio hau aspaldi gertatu zela esaten dut, 3009. urtean gertatu zelako eta orain 5009. urtean gaudelako. Abisatu nahi dut istorio hau benetan gertatu zela, ez pentsatzeko erotuta nagoela.

Bazen behin Ainitze izeneko neska bat. Neska hau Arantza izeneko herrixka batean bizi zen, nahiz eta denbora ia guztian hara eta hona ibili bere aitaren lanagatik, enpresari garrantzitsua baitzen. Ainitze argala eta altua zen, jirafa bat bezala; hala ere, hankak zituen luzeak, enborra oso txikia baitzeukan, normalean baino txikiagoa. Ilea oso luzea zuen, gerriraino iristen baitzizaion eta kizkurra, oso kizkurra zuen, bere amak bezala. Hala ere, egunero lisatzen zuen kopetilea, lisoagoa edukitzeko. Begiak berde-berdeak zituen, belarra bezalakoak, eta, gainera polit-politak, bera bezalakoak. Sudurra txikia zuen, txinatarren antzera, baina ederki hartzen zuen arnasa eta ikaragarri ongi desberdintzen zituen usainak. Aho txikia zuen eta haren barnean hortz polit-politak gordetzen ziren. Burua, orokorrean, obaldua eta txikia zuen. Lepoa, berriz, luzea, bere hankak bezala eta hau egia da, ze lepo altuko jertse guztiak motzak geratzen zitzaizkion. Besoak nahiko laburrak zituen, hankekin konparatuta. Eskuak luzeak eta politak zituen eta azkazalak zer esanik ez; horiek azkazalak, horiek! A ze nolako inbidia ematen zidaten politik, gogorak, kolore bikainekoak... zoragarriak. Oinak, beste gauza guztiak bezala, oso handiak zituen eta berrogeita bosteko neurriko zapatak erabiltzen zituen. Izaera aldetik, berriz, jatorra, bihotz onekoa, eskuzabala, jeinu bizikoa eta burugorraz zen.

Ainitzeri asko gustatzen zitzaizkion animaliak eta, horregatik, txakur bat zuen etxean. Hau Border Collie arrazakoa zen, txuria eta beltza, eta gaztea, bederatzi hilabete besterik ez baitzituen. Negu izena zuen.

Gurasoek ez zioten kasu txikienik egiten eta Ainitze baztertuta sentitzen zen askotan. Gurasoak ez ziren batere jatorrak, ezta eskuzabalak ere. Jeinu txar- txar-txarrekoak ziren, beti haserre baitzeuden eta Ainitze baino berrogeita hamar aldiz burugogorragoak ziren. Hori bai, burugogorak, baina inoiz arrazoirik eduki gabe! Bere ama tapoi bat bezalako zen, hau da, txiki-txikia eta potolo-potoloa. Burua erraldoia zuen, munduko bola baino handiagoa eta baloi bat bezain biribila. Lepoa oso motza zuen lepo altuko jertse guztiei lepoa mozten baitzien... eta horrela dena. Ainitzeren berdina zen, baina mundu aldrebesean: hau da, dena bere alabaren kontrakoa zuen, eta ez pentsa hori ama bakarrik zenik, aita ere berdin-berdin. Ez dakit nik nondik irten den horrelako alaba polita guraso horiek edukita!

Egun batean, Ainitze, ikastolatik ateratakoan, oso pozik zihoan etxera, ze ikastolako gai guztietan, amaierako notan, hamarra atera zuen. Eta, etxera iristean, amari hau esan zion:



*Idoia Mujika*

—Kaixo, amatxo maitea! A, ze poza hartuko duzuna oraintxe! ezetz asmatu? Ikastolako amaierako nota guztietan hamarra atera dut! Kar, kar! Oso pozik nago! Zer iruditzen zaizu? —amak ez zion kasu txikienik egin—. Ama! Entzuten al didazu?

Eta amak honako hau esan zion:

—Tira, tira! Ez da horrenbesterako. Lasai! Gainera, orain zu zigortzeko gogoia daukat... Gaur gauean afaldu gabe!

Eta Ainitzek:

—Baina, ama! Hori oso injustua iruditzen zait, zuk gehienak bost ateratzen zenituen, gainera! Oso haserre nago! Gorroto zaitut!

Ainitze oso triste geratu zen. Tira, triste baina oso haserre ere bai, ze izugarritzko esfortzua egin zuen nota horiek ateratzeko. Horregatik, haserrea pasatzeko, hondartza aldera joan zen txakurrarekin, asko maite baitzuen. Hondartzarako bidean zihoazela, bat-batean zerbait mugitu zen belarretan eta... untxi bat zen! Orduan, Ainitze berarekin hitz egiten hasi zen:

—Kaixo, untxitxo! Ederra sustoa eman didazuna, kar, kar! Ze polita zaren! Tira, untxi tokira eramango zaitut, ongi?

—Bale —erantzun zuen untxitxoak.

—Eeee? —esan zuen Ainitzek harriturik.

Ainitzek konortea galdu zuen; baina, esnatu zenean, konturatu zen bere txakurrak hitz egin egiten zuela, hegan egiten zuela, indar magikoak zituela eta abar. Horregatik, pentsatu zuen oso kolpe handia hartu zuela eta hobe izango zuela etxera joan eta bere ama gorrotagarriari gertatu zitzaiona kontatzea; baina, orduan, bere txakurra, Negu, hitz egiten hasi zitzaion eta hau esan zion:

—Ainitze, lasai! Hau ez da gezurretan gertatu, egiazkoa da! Untxi mota horrek super-heroi bihurtzen du jendea eta guk biok zorte hori eduki dugu! Tira, fidatu zaitetz nitaz, zure txakur maitagarria naiz eta!


Horrek neskaxa konbentzitu zuen eta hau esan zion:

—Tira, espero dut nire txakur maitagarri eta leialak ez gezurrik esatea. Negu, zutaz fidatzen naiz; beraz, ez iezadazu hutsik egin, ados?

—Bai, ene jabe Ainitzewoman! Kar, kar! —esan zuen Neguk

Orduan, buelta eman eta etxerako bidea hartu zuten, poz-pez; baina beren buruari zin egin zioten hau ez ziotela gure neskaxaren gurasoei kontatuko, albisteak ikusten ez zituztenez, ez zirelako ohartuko.

Egun batzuen buruan, Ainitzewoman eta Neguman oso-oso-oso (ez dut exajeratzen) urduri ibili ziren. Tira, normalean ez da egunero bat super-heroi bihurtzen, baina



*Mireia Zinkunegi. Herrio natur saria*

ez zeuden horregatik bakarrik urduri, beren lehen salbamendua noiz iritsi zain zeuden, eta handik bi astetara iritsi zitzairen beren supergerrikoetatik. Kasua ez zen oso erreza. Izan ere, sute handi bat itzali behar zuten Australian eta haraino hegan joan behar zuten; baina, hala ere, Australiako sutea ez zen batere txikia, bi hiri oso baitzeuden sutan. Hala ere, hori guztia ez zen nahikoa gure bi super-super-heroiak kikiltzeko, eta, denbora apur bat igaro ondoren, sua itzalirik zegoen. Hori bai, nahiko nekatuta amaitu zuten, beren lehen kasua zelako eta dezente kostatu zitzaielako sute handi hura itzaltzea.

Handik pare bat astetara lapurreta bat gertatu zen Errusiako hiriburuan, Moskun, eta gure bi super-super-heroiak tximistaren abiaduran joan ziren hara, lapurrek segituan egiten dutelako ihes; baina, hala ere, gure Ainitzewoman eta Neguman azkarragoak izan ziren eta lapurrak berak nahi baino azkarrago harrapatu eta Errusiako kartzela batean sartu zituzten eta, ondoren, etxera joan ziren poz-pozik, beraiek prestatu behar zutelako afaria eta patata tortilla prestatuko zutelako beren harrapaketa saritzeko.

Hortik lau bat astetara, istripu baten abisua jaso zuten beren gerrikoetan eta istripu hura ez zen edonolakoa, bi kilometrotakoa baitzen! Baina gure super-super-heroiak ez ziren kikildu eta argiaren abiaduran joan ziren istripuko lekura, hau da, Donostiako sarrerara. Baina, oraingoan, normala ez zen gauza bat gertatu zen: joan zirenerako, dena normal zegoen, eta Ainitzewomanek esan zuen:

—Tira, gure gerriko hauek apurtzen hasita daudela uste dut. Hondartza bideko untxitxoari eman beharko dizkiogu konpontzeko!

—Bai, hala izan beharko du ba! —onartu zuen Negumanek.


Handik hiru astetara hilketa bat gertatu zela adierazi zien gerrikoak eta joan egin ziren hilketa gertatu zen lekura baina... berriro ere, joan zirenerako, dena normal zegoen eta hiltzailea harrapatuta. Orduan, esan zuen Negumanek:

—Hau ez da posible, atzo konpondu zizkigun hondartza bideko untxitxoak gerrikoak eta!

—Ez dut uste gerrikoen arazoa denik. Nik uste dut beste super-heroi batzuk sortu direla, ze kasua argituta dago —esan zuen Ainitzewomanek.

—Egia da, kasua argiturik dago! Tira, goazen polizia horiei galdetzera —proposatu zuen Negumanek.

Joan, joan ziren galdetzera; baina, neskatoaren gurasoek bezala, ez zieten kasurik egiten eta, azkenean, ezer jakin gabe eta mindurik, etxera joan ziren. Baina hala jarraitu zuten urte batzuen buruan: beti gerrikoak seinaleak ematen; baina, joaten zirenerako, dena argiturik edo konpondurik edo itzalita... Horrela, Ainitzewoman eta Neguman egunkarien lehen orrialdeetatik desagertzen joan ziren; Hala ere, ez zuten inoiz jakin nor ziren beste super-heroiak eta beti atsekabeturik itzultzen ziren etxera.



*Unai Etxebarria. Herrio natur saria*

Horrela jarraitzean, beren ondorengo bizitza guztia atsekabeturik, apeturik gabe, triste, lo egin gabe, eta abar pasa zuten; laburbilduz, bizipoza galdu zuten. Egun euritsu batean, ordurako nazka-nazka eginda, hau esan zuen neskatxak:

—Nik horrela ezin dut jarraitu. Nazkaturik nago horrela jarraitu beharraz. Uste dut super-heroi izateari ezetz esango diodala; bai, super-heroi izateari utziko diot!

—Bai, ni ere nahiko nazkaturik nago horrela jarraitu beharraz, orain inork ez gaitu errespetatzen, super-heroi izan aurretik ere gehiago errespetatzen gintuzten —berretsi zuen txakurtxoak.

Hurrengo egunean biak hondartza aldera joan ziren untxitxoaren bila; baina, egun guztian bere bila egon ondoren, ez zuten aurkitu eta gero eta gogo handiagoak zituzten super-heroi izateari uzteko, ze jendeak iraindu egiten zituen. Hurrengo egunean, berriro joan ziren untxitxoaren bila eta goizeko zortzietatik gaueko hamarretara egon ziren haren bila, baina ez zuten aurkitu. Bazirudien untxitxoak ez zuela nahi bi haiek super-heroi izateari uztea eta ez zela agertzen horregatik. Baina bi super-heroiek ez zuten etsi eta egunero joaten ziren untxitxoaren bila. Egun haietako batean untxia jada nazkaturik zegoen ezkutatzaz eta bera irten zen Ainitzek eta Neguk gutxien espero zutenean, ordurako etsita zeudenean, eta hau esan zien:

—Mesedez, untxitxo! Ken iezazkiguzu indar magikoak eta hegan egiteko dauzka-gun gaitasunak, mesedez, nazka-nazka eginda gaude jendeak ez kasurik egiteaz eta gu iraintzeaz!

—Tira, hori nahi baduzue, ongi da; baina, zuek zaretelako, gorde egingo ditut tra-jeak eta indar magikoak eta hegan egiteko gaitasuna eta... a, ez! Bukatu dut. Barkatu, kar, kar! —erantzun zuen untxiak.

—Eskerrik asko! —esan zion Neguk.

Baina gauza ez zen hor geratu. Izan ere, super-heroiak izateari utzi ziotenean, lapurreta, istripu, hilketa, sute... asko gertatu ziren eta haiek ez zituen inork argitzen. Bazirudien gure bi protagonistak berriro super-heroi bihurtzea nahi zutela. Beste bi sasi super-heroiek ez zuten kasurik argitzen, ez suterik itzaltzen ez trafikorik erregulatzen, ez ezer; ez zuten ezer egiten. Hori ikusita, hau proposatu zuen Ainitzek:


—Ei, Negu! Hau ezin dut jasan. Ni super-heroi bihurtuko naiz berriro. Zuk zer egin behar duzu?

—Nik nire nagusiak egingo duena! —erantzun zuen Neguk, poz-pezik.

Orduan, hondartza aldera joan ziren berriro, untxitxoaren bila, eta ez dakit kasualitatea izan zen edo zer, lehenengo saiakuntzan aurkitu zuten eta hau erregutu zioten biek batera:

—Mesedez, untxitxo! Bihur gaitzazu berriro super-heroi, mesedez!





*Karla Fernandez de Betoño*

Tira, tira! Ez daukazue horrela jarri beharrik, mesedez! Batek esatea nahikoa da! Eta, lasai, segituan itzuliko dizkizuet-eta jantziak, indar magikoak eta hegan egiteko gaitasuna!

—Eskerrik asko! Izan ere, ezin dugu jasan hainbeste lapurreta, hilketa, istripu eta sute gertatzea eta inork ez argitzea! —informatu zuen neskatxak.


Eta, horrela, berriro super-heroi izanik, hurrengo sute, hilketa... guztiak argitu zituzten.

Baina, beste super-heroiak nor ziren jakin nahian, haien gordeleku sekretura jarraitu zieten eta nor izango eta... Ainitzeren gurasoak!

Hori ikusirik, Ainitzek izugarrizko garrasia egin zuen eta gurasoek ikusi egin zituzten.

Ondoren, gurasoek, zigor nahiko gogorrik pentsatu ezinda, hil egin zituzten eta mundua Ainitzewoman eta Neguman gabe geratu zen.

*Maitane Escudero*



*Iker Goztegi*

# Sandra mundu misteriotsuan

Bazen behin Thailandia izeneko nazio bat. Han Sandra izeneko neskatxa gazte bat bizi zen. Hamahiru urte zituen eta etxez aldatu behar zuten. Berak ez zuen nahi han baitzituen lagunak, oroitzapen onak... baina aitaren lana zela-eta Euskal Herrira etorri behar zuten, Donostia izeneko herri batera. Han Javi izeneko mutil laguna zuen. Oso ederra zen, ile horia, begi urdin distiratsuak, aho txikia, azal kolore nahiko zuria eta alturaz normala zen. Bere amaren antz izugarria zuen izaeran eta gorpuzkeran, aldiz, aitaren berdina zen.

Sandrak Jon izeneko anai bat ere bazuen, 16 urte zituen.

Donostiara joateko ordua zen eta biek pena handia zuten, normala den bezala. Maletak hegazkineko zerbitzari bati utzi eta hegazkin barrura sartu ziren. Bidaia luzea zen, baina bakoitzak bere musika jarrita, segituan iritsi ziren. Madrilerira iritsita, beste hegazkina hartu zuten eta handik Bilbora joan ziren. Baina Bilbotik autoz joan behar zen eta, autorik ez zutenez, aitaren enpresako nagusia etorri zen bila.

Bidaia luzearen ondoren, azkenik etxean zeuden. Bakoitza bere logelara sartu eta maletak husten hasi ziren. Baina Sandraren logelan ordulari bat zegoen egiten ez zuena pilak falta zitzaizkiolako. Sandrak beti eramaten zuen pila pare bat; beraz, jarri egin zizkion eta, jakina, ordua ondo jarri, gaizki baitzegoen. Ordua ondo jarri ondoren, logelako atea ireki eta belardi handi eta zabal bat ikusi zuen! Han perretxiko hiztunak, mahai bizidunak... zeuden. Sandra txundituta zegoen. Bat batean perretxiko bat hurbildu eta galdetu zion:

—Zu Sandra zara, ezta?

—Bai, ni naiz! —esan zuen Sandrak beldur pixka batekin eta, jarraian, galdera bat egin zion:

—Nola dakizu nire izena?


—Orain, gure errege maiteak azalduko dizu. Zatoz nirekin —erantzun zion.

—Baina...

—Ez baina eta ez ezer! Zatoz nire atzetik.

Perretxikoak gaztelu handi eta eder baterantz eraman zuen; bere ametsetako gaztelu ederrera. Bat-batean, gazteluko atea ireki zen eta perretxikoak sartzeko esan zion. Hala egin zuen. Han bitxiez jositako aulki eta mahaiak zeuden. Eta bat-batean esan zion erregeak:

—Kaixo, Sandra! Zure zain nengoen eta oraintxe esango dizut zer gertatu den eta zergatik zauden hemen. Oso istorio luzea da; beraz, hartu patxadaz. Hara, gu hilezko-



*Xabier Requijo*

rrak gara; baina baldintza batekin, harri boteretsu bat dago guri hilezkortasuna ematen diguna. Harri hori gabe ehun urteko bizia dugu eta, dirudienez, harria ez dago bere tokian eta biztanleria gutxitzen ari da. Guk mito bat dugu eta honela dio “Hilezkortasuna emango dizue harriak; baina, zerbait gertatuko balitz, Sandra santuak bakarrik salba zaitzakete.” Eta jainko hori zu zara eta misio bat bete behar duzu. Bete arte ezingo duzu berriz etxera itzuli; baina lasai, zu bizi zaren munduko denbora geldirik dago. Gure lurraldean ez dago ez urterik ez egunik ezta ordurik ere Hilezkorrak bagara, ze axola dio ez? Zure helburua harria berreskuratzea da. Laguntzaile bezala hiru adiskide eraman ditzakezu. Zein nahi dituzu?

—Ba... soka bizidun eta hiztun hori, erreminta hiztunak eta... ez dakit, ba...

—Nik motor hiztun eta gasolina gabea gomendatzen dizut, ze batetik bestera ibiltzeko...

—Ba, bai, arrazoi duzu! Horixe hartuko dut, ba. Eskerrik asko, jauna! —esan zuen belaunikatuz.

—Ez zaitetz belaunikatu eta ez deitu jauna, ze hemen, zu zaudenean, zu zara gure jauna. Deitu iezadazu Javi, mesedez.

—Bale, ba! Eskerrik asko, Javi —esan zuen Sandrak lotsaturik eta pixka bat tristerik, ze Javi bere mutil lagun ohia zen eta izenak gogorarazi egin zion.

Horrelaxe, hiru lagunekin batera, lurraldea miatzera joan zen. Bidean eskorpioi batekin topatu zen eta, normala den bezala, beldurtu egin zen, oso arriskutsuak baitira. Beldurturik, ihesean hasi zen; baina sokak esan zion:

—Ez ikaratu! Hemengo eskorpioiek ez dute pozoirik eta adiskideak gara. Gauza bat esan nahiko digu.

—Barkatu, gure lurraldean hil egin gaitzake zu bezalako batek pikatuz gero —esan zion Sandrak eskorpioari.

—Bai, halaxe da! Baina nik ez dut pozoirik eta denen laguna naiz. Gauza bat kontatu nahiko nizueke, hara: harri baten azpian zure hizkuntzan idatzita dago eta zuk bakarrik irakur dezakezu. Ea, irakur ezazu hau.

—Utzidazu ikusten, mesedez. Ea, ba: “Harri hau zure hizkuntzan dago ze zuk bakarrik lor dezakezu harria. Aurrerantz jarraitzen baduzu, tenplu handi bat dago. Ez da ikusten; eta zuk bakarrik lor dezakezu. Bertan harri asko daude eta ezin dizkizut pista gehiago eman. Tenplua aurkitu behar duzu.”

Hori irakurrita, Sandra eta hiru adiskideak abiatu egin ziren. Harriak zioen bezala, harri asko zeuden tokia topatu zuten; baina oso urruti zegoen oraindik eta, gainera, lehenengo, amildegi bat zeharkatu behar zuten. Han zubi mehe eta luze bat zegoen; baina ez zirudien egonkorra eta zerbait egin behar zuten. Soka zutenez eta ez zuenez

asko pisatzen, zubi erdira joan eta, bere buruaren bidez, zubia ondo lotuta utzi zuen eta honela pasa ahal izan zuten. Baina, jarraian, agure bat triste ikusi zuten baratzen inguruko hesia hautsirik zuelako eta animaliek barazkiak lapurtzen zizkiotelako. Sandrak laguntzea erabaki zuen. Erreminten laguntzaz, hesia konpondu zuen eta agurea oso pozik jarri zen. Eskerrak eman ondoren, desagertu egin ziren bai agurea eta baita hesiak inguratzen zuen baratza ere. Han eskailera batzuk agertu ziren. Eskailera haietatik jaitsi eta bertan Egiptoko piramide baten barruan zegoela zirudien. Bat-batean lantza batzuk jaurtitzen hasi ziren bertan zeuden estatua batzuk. Ondoren, paretak estutzen hasi ziren eta, azkenik, area asko erori zen atzealdetik eta toki osoa puskatzen hasi zen. Azkar ateratzeko zerbait behar zuen. Motor gasolina gabearen bidez azkar atera ahal izan zuten handik. Horrela, tenplura iritsi ziren lau lagunak. Bertan ahots batek esan zien:

—Sandra, lortu duzu hona iristea; baina orain galdera bati erantzun beharko diozu. Zer da behar-beharrezkoa misio bat burutzeko? Erantzun ezazu hitz baten bidez.

—Laguntasuna —erantzun zuen Sandrak.

—Eta zergatik da laguntasuna beharrezkoa?

—Ba hiru lagun hauek gabe ez nukeelako lortuko ez zubia pasatzea, ez agureari laguntzea, eta ezta estutasunetik salbatzen ere.

Sandrak erantzun zuzena eman zuen eta argi distiratsu bat agertu zen lurretik. Harria zen! Sandrak lortu zuen harria eta mundu hori normaltasunera itzuli zen. Sandra eta lagunak erregearengana itzuli ziren. Irtsi bezain laster erregeak esan zion:

—O, Sandra! Gure jainkosa maitea! Mila esker salbatzeagatik. Orain ez da populazioa gehiago jaitsiko. Hori eskertzeko, onar ezazu bitxidun eraztun hau.

—Mila esker. Baina orain joan naiteke etxera?

—Bai. Nik esan nizun misioa bete eta etxera joango zinela; beraz, itxi begiak eta jar zaitez plaka horren gainean.

Erregeak palanka bati eman zion. Sandrak begiak ireki eta bere logelan zegoen. Bere ama deika zuen. Sandrak, beldurturik, erlojuari pilak kendu eta, inoiz gehiago ez gertatzeko, erlojua ongi ezkutatu zuen. Inork ez zekien benetan gertatu zen ala ez; baina, bat-batean, bitxiz osaturiko eraztun bat agertu zitzaion poltsikoan. Benetan gertatu ote zen? Ala ametsa zen? Egia ote zen? Ala kasualitatea eraztuna poltsikoan edukitzea?

*Alaitz Miera*

# Hotzaren negarra

Hotza egiten zuen. Hotz handia. Till etxean zegoen, bero-iturri gutxirekin. Onena, Tino zen, bere zakurra. Bere larru iletsu eta lodiaren ondoan, zakurrari besarkatuta, horrelaxe berotzen zen.

Egunero bezala, Mariarekin hizketan ari zen telefonoz. Asko hitz egiten zuten, oso lagun minak baitziren. Ospitalean ezagutu zuten elkar, Till Tinori ilea mozten ari zitzaiola eskuan ebaki nahiko sakon bat egin zuenean. Ordutik aurrera, beti jartzen ziren harremanetan, eta gehiago orain, Till-en ama hil berria baitzen. Maria ez zen oso nabarmen geratzen mutilen artean. Nahiko itsusia zen. Baina zintzoa, adeitsua, nahiko burugogorra eta azkar haserretzen zena zen.

—Ez da erraza —esaten zion Tillek Mariari—. Esaten dutenez, denborarekin zau-riak sendatzen omen dira. Espero dut horrela izatea.

—Lasai, hala da eta —adierazi zion Mariak, lasaitzeko asmoz—. Hala eta guztiz ere, pazientzia eduki behar duzu, ez zaizulako egun batetik bestera pasako. Nahi baduzu, zure etxera joan eta lasaiago hitz egingo dugu.

—Ongi da —erantzun zion lasaiago Tillek—. Asko eskertzen dizut, benetan, zure laguntza. Ez dakizu zenbat laguntzen nauzun.

—Ongi, han izango nauzu bost minututan —esan zion Mariak, eta “Agur!” hotz batekin utzi zuen.

Till ez zen momentu xamurra bizitzen ari. Mariari bere amaren sekretua kontatzea pentsatzen zuen; horrela lortuko baitzuen bere barrua lasaitzea. Kafea prestatu eta etxea txukundu zuen. Lanak amaitu eta bost minutura heldu zen Maria. Elkar besarkatu eta egongelara joan ziren kafea hartzera.

—Hemen zaudenez, sekretu bat kontatu nahi dizut. Nire amaren sekretua; berak, hil aurretik, kontatu zidana. Horrela bakarrik lortuko dut lasaitzea —esan zion Tillek

—Ongi da, nahi duzun bezala —erantzun zion Mariak.

—Hau da nire amak urteetan zehar jende guztiari ezkutatu zion sekretua:

Egun hartan hotza egiten zuela esan zidan. Neguko egun hotz eta euritsu bat. Nire ama etxeko egongelan zegoela esan zidan, gaztea zenean, eta, bat-batean, ahots bat entzun omen zuen. Berak, ikaraturik, gurasoen gelara igo eta han zegoen eskopeta hartu omen zuen. Ahotsa ez zela isiltzen esan zidan. Ama, azkenean, laguntza eske hasi omen zen. Bere bizilaguna etxera sartu eta etxea goitik behera miatu zuela argitu zidan ene amak, baina ez zuela ezer aurkitu. Orduan, amak zorretan zegoela eta nahi zuena eskatzeko adierazi ziola kontatu zidan. Orduan, Martinek, hots, bizilagunak, bere gela-





*Mariana Sayalero*

ra joateko eskatu omen zion. Bera, nahiko harrিতuta bere eskaerarekin, gelara eraman omen zuen. Sartu bezain pronto, Martinek atea itxi eta bortxatu egin zuela adierazi zidan. Eta, gainera, ez zela azkeneko aldia izan,

—Ai, Maria! Zer iruditzen zaizu? —galdetu zion Tillek bere lagunari, lasaitu aurpegiarekin.

—Ez daukat hitzik. Josefa gaixoa... oso gaizki pasako zuen. Benetan sentitzen dut zure amarena, Till —adierazi zion Mariak

—Bai, nik ere asko sentitzen dut... —esan zion Tillek.

Eta, hori kontatu bezain laster, etxeko argiak itzali ziren. Arratsaldeko zazpiak zirenez, eta negua zenez, gaua zen, eta ez zen ezertxo ere ikusten. Mariak, sustoagatik oihu egin zuen, eta Tillek, lasaitzeko eskatuz, Mariaren mugikorra hartu eta elektrikari bati deitu zion. Elektrikaria handik gutxira heldu zen, linterna bat eskuetan zuela. Mikel izena zuela esan zien, eta ez zela arazo larria. Mikel matxura konpontzen ari zen bitartean, Till eta Maria egongelan geratu ziren, ordurako nahiko hoztu zen kafea edaten.

Mikel egongelara azaldu zenerako, zortziak laurden gutxiak jo zuten. Matxura konpondu zuela, eta dagoeneko lasai egon zitezkeela esan zein. Baina, hori esan ondoren, egongelako mahaian zegoen loreontzia hartu eta Tillen buruaren aurka jo zuen. Mariak, aurpegi alaiarekin, eskerrak eman zizkion Mikeli, eta joan zitezkeela esan zion. Honek, buruari gora eta behera eragin zion, baiezkoa adieraziz, eta irteerarantz joan zen.

Bitartean, Mariak bere sakelatik barnean likido garden bat zuen xiringa bat atera zuen.

—Tira, ene Till! Zure amarekin elkartzeko unea heldu zaizu... —esan zuen, eta egin zuen hurrengo gauza xiringa belarri atzetik sartzea izan zen—. Zorte txarra izan duzu. Hiltzaile baten lagun bihurtu zara. Baina, egia esan, lagun ona, zure amarekin elkartzeko balio izan dizu-eta, kar, kar, kar!

*Amaia Arregi*



*Cristina Burlacu*

# Maitasuna

Bazen behin herri txiki bat, jende gutxi bizi zena. Han Ikastola bat zegoen eta hamahiru urtekoen gelan mutil bat eta neska bat bikote ziren. Mutilak Eneko zuen izena, argala eta txikia zen eta ile beltzarana zuen. Izatez, oso jatorra zen; baina, futboleko ibiltzen zela-eta, bere harrotasun puntua zuen, ona zelako. Neskak Ikerne zuen izena eta altua zen, eta baita oso argala ere. Ilehoria zen eta mutilekin ibiltzea oso gogoko zuen. Enekok eta Ikernek asko maite zuten elkar eta, gainera, oso bikote ederra egiten zuten.

Oso gustura ibiltzen ziren elkarrekin eta ordu dezente pasatzen zuten, elkarri muxuak emanaz. Egun batean, Enekok afaltzen hasi behar zuen. Aita, ama eta Eneko gustura ari ziren afaltzen eta hitz egiten. Orduan, aitak zera esan zien: laster beste lan berri bat eskaini ziotela eta urrutiko beste herri batera joan beharko zutelako bizitzera.

Eneko oso triste jarri zen momentu horretan. Orduan, Enekok telefono mugikorrekin dei egin zion Ikerneri eta esan zion gelditu egin behar zutela, hitz egiteko. Hurrengo egunean Enekok beste herri batera joan beharko zuela bizitzera azaldu zion Ikerneri eta neska, orduan, oso triste geratu zen. Enekok esan zion neska-lagunari etxera joan behar zuela, maletak egitera, bi egun barru zihoazelako. Etxean Enekok dena erran zuen berari eta bere neskari buruz eta ama, harriturik gelditu arren, ez zela hemen geldituko adierazi zion. Eneko Ikernekin gelditu zen; baina Ikernek, ahaztu egin nahi zuenez, Eneko agurtu eta beste lagunengana joan zen zuzenean. Agurtu baino lehen, Ikernek harremana moztu zuen, ez zuelako mutila beste herri batekoa eduki nahi; gehienbat, ez zirelako askotan ikusiko.

Eneko oso triste zegoen etxean, bazihoazelako eta neskak utzi egin zuelako; baina, orduan, aita sartu zen etxean eta berri ona zuela esan zion. Berri on hori zera zen: ez zutela, azkenean, beste herri batera joan behar bizitzera, lantokia beraiek bizi diren lekutik gertu baitzegoen.


Poz-pozik, telefono mugikorra hartu eta Ikerneri deitu zion; baina hark ez zion telefonoa hartzen. Deitu eta deitu eta, halako batean, hartu zion eta zera galdetu zion Ikernek:

—Zer nahi duzu nigandik orain?

—Zurekin hitz egiteko gelditu nahi dut —erantzun zion Enekok.

—19:00etan frontoian orduan —proposatu zion neskak gogo handirik gabe.

Ordua ailegatzean, biak bakarrik zeuden frontoian eta Enekok dena argitu zion: alegia, ez zirela joango beste herrira, gertu zegoelako aitaren lantoki berria. Ikerne, ordea, ez zuen ematen asko poztu zenik. Handik laster, Ikernek egia esan zion: azkenaldian



*Kevin Roberto Zeladon*

beste mutil bat gustatzen zitzaioela eta ondo pentsatu nahi zuela, jakiteko zein zuen gogokoena. Enekok, orduan, asko maite zuela adierazi zion, baina Ikernek erantzun zion ez zuela nahi berriz berarekin bikote izan, eta berarekin ahazteko eskatu zion, beste mutilak eskatuko ziola-eta bere neska izateko.


Eneko oso triste jarri zen eta, lehen Ikernerekin egoten bazen denbora guztian, orain ez, orain lagunekin egoten zen edo bakarrik. Beti Ikernez pentsatzen ari zen eta, halako batean, mutila gaixo jarri zen. Hiru edo lau egun egon zen eskolara joan gabe eta, eskolara joaten zenean, klaseak bukatutakoan etxera joaten zen eta arratsalde guztia etxean pasatzen zuen etxeko lanak egiten edo telebista ikusten. Futboleko entrenamenduak baldin bazituen, gogorik gabe pasatzen zuen ordu eta erdi guztia eta, dutxatu ondoren, inorekin hitz egin gabe, etxera joaten zen bakar-bakarrik.

Osteguna zen eta ikastolara neska berri bat etorri zen. Neskaren izena Paula zen. Argala zen eta Eneko bezain txikia. Oso atsegina zirudien eta, Enekok esaten zuenez, oso ederra zen. Lehenengo, eskolan, neska presentatu egin zien irakasleak eta, ondoren, Enekoren aldamenean jarri zuen, ikasketak egiteko. Oso gustura zegoen Eneko. Paula oso neska alaia eta argia zen, matematiketan oso ona zen eta Enekori laguntzeko proposa zen, Eneko oso txarra baitzen. Oso ondo moldatzen ziren biak eta, azkenean, Enekok galdetu zion ea bere bikote izan nahi zuen eta baietz erantzun zion Paulak.

Orduan, beren gelan bi bikote geratu ziren: Ikerne, Enekoren lehenengo neska, eta beste mutila, lehenengoa; eta bestea, Eneko eta Paula.

Eneko eta Paula ia beti elkarrekin zeuden eta beti elkarri eskua emanda ibiltzen ziren.

*Joxe Mari Errasti*



*Ekñitë Miralles*

# Lopez jarri digute

Lopez jarri digute  
orain lehendakari,  
euskarak izangoitu  
debeku ugari,  
tamalez jarri dute  
bera buruzagi,  
akabo nortasuna  
Euskal Herriari.

Korrikaren gainean  
istiluak mila,  
ezingo dugu joan  
laguntzaren bila;  
hala ere, borroka  
ez da, ez, isila,  
euskara inoiz ez da  
geratuko hila.

Madrildarrek digute  
hitza ezabatu,  
abertzaleen bizitza  
hortxe da bukatu,  
beste hauen izenak  
otoi ezabatu,  
hemendik lau urtera  
buruaz botatu.

*Ander Atorrasagasti*





*Goiuri Unanue*

# Ametsen jarraipena

Nire ametsak jarraituz,  
nire askatasunarekin jolasten dut.  
Zure usaina duten  
hitzak bakarrik arnastuz.  
Itsas ertzean korrika nabil,  
eta ziur ikusiko zaitut.

Hemen nago, maita nazazu,  
eta musuk doan emango dizkizut.  
Nik badakit zer izango naizen,  
maita nazazu eta niri lotu zaitez.  
Bizi gaitezen biok batera,  
utzi besteak alde batera.

Olerki hau sortzean,  
zu zaitut buru barnean...  
Batzuetan galtzen naiz,  
zer bilatu ez dagoelakoan.  
Lehen bezala maite zaitut,  
hori dakit pentsatzean.  
Izar argiak gara gu biok  
kolorez betetako begiradetan.

Zuregatik bakarrik  
abesten dut olerki hau.  
Pentsa dezatela nahi dutena  
baina hau ez da amaiera.

*Ibai Bastos*



*Beñat Dorronsoro. Herrio natur saria*

# Formula

—Zer berri dakartzazu, Mike?

—Familia osoa hil da, jauna.

—Ederki, Mike! Ezin hobeto.

—Eskerrik asko, jauna.

—Mike, eman buelta erdia, mesedez.

—Bai, jauna.

Pum! entzun zen tiro hotsa. Bat gutxiago, esan zuen bere barnerako.

## 10 URTE GEROAGO...

—Maria, zatoz! Zure aitona iristekotan egongo da eta oraindik dutxatu gabe zaude!

—Bai, banoa. Barkatu, Charlotte!

Maria bainugelan zegoen bitartean auto hotsa entzun zen. Bazetorren aitona. Atea ireki eta esan zuen:

—Charlotte! Non da Maria?

—Bainuontzian da, jauna!

—Esaiozu niregana etortzeko liburutegira.

—Bai, jauna.

—Hemen naiz, aitona. Zer nahi duzu?

Maria 14 urteko neska ederra zen, ile hori luzea zuen eta begi berde eta handiak. Oso neska argia zen eta beti zeukan erantzunen bat prest. Bere aitonaren antzik ez zuen, izan ere, bere aitonak begi marroiak eta zuritzen hasitako ile beltza zeukan.


—Zatoz hona, Maria. Dakizunez, nirekin bizi zara 4 urte zenituenetik, ezta?

—Bai, gurasoek auto istripu hura izan ondoren.

—Bai, egia da; baina uste dut zure benetako jatorria jakiteko garaia iritsi dela.

—Nire benetako jatorria?

—Bai, Maria zure benetako jatorria. Izan ere, ez zara nire benetako biloba. Zure gurasoak hil zirenean, nik jaso zintudan, zure amonak eskatu zidalako. Izan ere, zure gurasoen istripua ez zen istripua, hilketa izan zen.



*Ainhoa Illarramendi*

—Hilketa? Nork hil zituen baina?

—Ez dakigu nork, baina bere planean huts bat egin zuen. Izan ere, zu bizirik irten zinen. Eta zure gurasoen hilketaren arrazoa zera izan zen: formula baten jabe zirela.

—Formula? Baina ze formula?

—Betiko biziaren formula. Zure gurasoak fisikari famatuak ziren eta, beraiek ziotenez, betiko biziaren formula aurkitu zuten. Baina, aurkitu eta gero, mehatxuak jasotzen hasi ziren eta formula kutxa handi batean gorde eta lurperatu egin zuten. Orduan, zu salbatzeko, zure amonaren etxera eraman nahi izan zintuzten; baina bidean hil ziren. Orain, hiltzaileek zu aurkitu nahi zaituzte zu baitzara kutxako bidea eta giltza non dauden dakien bakarra.

—Ni? Baina nik ez dakit eta ezer!

—Bai, badakizu, eta denborarekin konturatuko zara.

Berri hau jakin eta gero, Maria bere logelara joan eta han geratu zen hurrengo goiza arte. Hurrengo goizean, liburutegira joan zen, bere aitona ikusteko asmoz, baina han ez zegoen inor, ohar bat baino ez:

“Maria, zure aitona dugu! Eman giltza eta mapa edo hil egingo dugu. Zatoz gaur arratsaldeko seietan igandero joaten zaren kafetegira.”

Korrika eta larrituta, zer egin ez zekiela, bere gurasoengan pentsatzen hasi zen eta giltza eta mapa zein ziren gogoratzen saiatu zen. Orduan, bere amak beti gogoko zuela esaten zion lekuaz oroitu zen, Muntroeko gaztelua eta berak txikitatik eduki zuen koilareak M letra zuela marraztua, atzean gaztelu handi bat azaltzen zela.

Agian, intuizioa bakarrik zen; baina, bere ustetan, han zegoen formula. Baina oraindik ez zekien non zegoen giltza, eta bi ordu bakarrik geratzen zitzaizkion. Buruari bueltak ematen egon zen, etxe guztia goitik behera hankaz gora jarri zuen; baina, hala ere, ez zuen ideiarik ere giltza non egon zitekeen. Zer egingo zuen? Ordu bat besterik ez zitzaion geratzen.


Denbora aurrera zihoan eta oraindik ez zekien non zegoen giltza. Orduan, agian koilarea izan zitekeela pentsatu zuen, aitak beti esaten ziolako lepokoa ez zuela inoiz galdu behar eta, gainera, gazteluaren marrazkia zuen. Hori izango zela pentsatuz, kafetegirantz abiatu zen.

Seietarako bost minutu falta zirela, ahots ezagun bat entzun zuen atzean:

—Kaixo, Maria!

—Aitona! Eskerrak ondo zauden! Non daude bahitzaileak? Badakit non dagoen formula eta zein den giltza!

—Ederki! Aurkitu dituzu! Orain, eman iezazkidazu, gaizki amaitu nahi ez baduzu!



*Elene Tamayo*

—Aitona! Baina bahitzaileei eman beharko diet zuri salbatzeko, ezta?

—Lasai, maitea! Ez dago-eta bahitzaileerik. Nik hil nituen zure gurasoak.

—Baina nola zuk hil zenituela, orain arte zaindu nauzu eta!

—Bai, eta oso zaila izan zen zure amona konbentzitzea; baina, azkenean, lortu nuen zurekin geratzea eta nik uste baino gehiago tardatu duzu lekua eta giltza bilatzen. Horrenbeste, ezen nire burua bahitu behar izan dut. Baina ez du inporta galdutako denborak, formula lortzean hilezkor egingo naiz eta!

Orduan, beste ahots ezagun bat entzun zuen Mariak:

—Atxilotua zaude hilketagatik!

—Zer da hau guztia, baina?

—Charlotte! Baina polizia al zara?

—Bai, eta zure zerbitzari bezala egon naiz urte guzti hauetan, zure aitona harrapatzeko.

—Baina nola liteke, ezin naute atxilotu!

—Bai, Mariaren gurasoen eta beste jende askoren hilketagatik atxilotua zaude. Eta zu, Maria, zatoz nirekin, zure benatako amonarengana eramango zaitut.

Eta, horren ondoren, Mariak formula suntsitu zuen, beste inork ez erabiltzeko inoiz, eta amonarekin zoriontsu bizi izan zen.

*Oihane Lertxundi*

## **Amaierarik ba al du?**

Iratzargailuak amets zoragarriei amaiera jarri die gaurkoan ere. Ohetik jaiki eta Miren gosaria prestatzen ari zela konturatu zara. Gosaldu eta, eguneroko legez, lanerako maleta hartuta, etxetik irten zara. Igogailuko ateak ireki direnean ohar hau ikusi duzu: “Hurrengoa, zu!”. Bigarren aldiz begiratu diozu eta, kasurik egin gabe, eguneroko martxan jarraitu duzu.

Eguna nola ahala pasa da eta, lanetik bueltan, berriro igogailua gorantz hasi da. Orduan, ispiluari zeure zimurrak erakusten dizkiozun bitartean, zimurtutako orri zati batean, letra gorritz idatzita dauden “Hurrengoa, zu!” hitzak irakurri dituzu. Momentu horretan, buruari bueltak emateko asti barik, argia joan da eta ilunpetan geratu zara lau hormen artean.



Handik gutxira, argia berriz etorri denean, igogailua ere goranzko bidean da berri-  
ro ere. Ahots isilean txistua jotzen ari zara, lasai egongo bazina bezala, tanta mardul bat  
goitik behera erori den arte. Hezetasunaren ondorio izango dela ziur zaude. Baina,  
gero, beste bat, eta beste bat, tanta jariora konstantea bihurtu den arte. Azkenean, gora  
begiratu eta gorputz osoan ikara beldurgarri bat sentitzea besterik ez duzu, deskriba  
ezin daitekeen sentsazioa, haize hotza benetatik barrena ibiliko balitz bezala, baso ilun  
baten aurrean bazeunde bezala. Tanta horiek zorigaiztoko bi hitz osatzen dituzte, orain-  
goan ere: “Hurrengoa, zu!” hain zuzen. Hitz horiek giza odola dute osagai. Odol tan-  
tek banaka-banaka jotzen dute igogailuaren lurra. Denbora gelditu balitz bezala senti-  
tu zara, igogailuko ate sendoak ireki diren arte. Lehenbailehen, astirik galdu gabe, igo-  
gailutik irten eta etxeko ateko sarrailan giltza sartu ezinik zabilta, izuaren ondorioz.  
Etxean sartu orduko, baso bat ur edatea bururatu zaizu ea bihotzaren taupadak jaisten  
diren behingoz. Azken ur tragoa edaten ari zaren bitartean, hozkailura joan zaizu begi-  
rada. Ohar bat dago, zimurtua, eta bi hitzez osatua. Oraingoan, Mirenena da oharra,  
zeure emaztearena. Lana luzatu egin zaiola eta beranduxeago iritsiko dela dio, bedera-  
tziak aldera. Ordu erdia ere ez da falta, beraz, Miren iristeko. Afaria prestatzen ari zara  
bitartean, patatak zuritzen. Baina, berehala, utzi egin behar izan duzu, patata zuritze-  
koarekin zauri bat egin baituzu ezker eskuan. Lasaitzeko asmoz, besaulkian etzan zara  
loak hartu zaituen arte.

Tinbreak jo du. Ordu erdi pasa da dagoeneko eta Miren da atearen beste aldean.  
Elkarrekin afaltzen ari zareten bitartean igogailukoaren gainean ezer ez aipatzea eraba-  
ki duzu eta ohera joatea erabaki duzu, leher eginda baitzaude.

Gau txarra izan da gaurkoa, ia ez duzu lorik egin. Mirenek, orduan, zakarrak jaiste-  
ra doala esan dizu eta gosaria eta prentsa mahai gainean utzi dizkizula ohartarazi dizu.  
Atea ixten aditu duzu. Gosaldu ondoren, jaka jantzitakoan, prest zaude lanera joateko  
maleta hartuta. Baina Miren ez dela itzuli konturatu zara. Auzokidearekin berriketan  
geratuko zela eta geroago etorriko dela pentsatu duzu. Igogailuari deitu diozu. Bigarren  
solairura iristen den bitartean, jakaren azpiko alkandora ondo jartzen ari zara. Iritsi da  
igogailua. Ateak irekitakoan, atzokoa bezalako sentsazioa etorri zaizu gorputz barrene-  
ra. Arnasa hartu ezinik sentitu zara eta maleta lurrera erori zaizu, plast!

Miren sabaitik zintzilik dago, urkatuta. Zakar poltsa, berriz, lehertuta dago, igogailu-  
ko lurrean sakabanatuta. Ezkerretara begiratzuz, Mirenen eskuan ohar bat ikusi duzu,  
zimurtutako ohar bat. Eta bertan idatzita, hitz madarikatu haiek daude. Dagoeneko igo-  
gailuaren barruan zaude eta ateak azkar itxi dira, soinu bortitz bat eginez. Gero eta  
azkarrago, azkenean pisu kontatzaileko pantailan zero jarri duen arte. Momentu horre-  
tan pentsa ezinezko zerbait gertatu da: lurraren kontra talka egin du igogailuak, eta hil  
egin zara.

Miren ikusten duzu aurrean, harridura aurpegiarekin, zeuri begira. Zeu izerditan  
blai eginda zaude, ohean erdi eserita, arnasestuka. Ospitalean zaude, atzo gauean sukar  
handia zenuen eta bertan ospitaleratu zintuzten. Gauean eduki duzun esperientzia hori

amets bat izan dela esan nahi diozu zeure buruari, imajinazio bat, gaixo egoteak eragin dizuna. Haize bolada ederrak dabilta kanpoaldean. Behin eta berriz kolpatzen dute gelako leihoa. Orduan, haize bolada indartsu bat etorri da eta leihora era guztietako orbelak ekarri ditu, kristalaren kontra itsatsita geratu direnak. Orbel horien artean badago zerbait txikia, paper zati bat esango nuke, zimurtutako paper zati bat. Ohetik jaiki eta leihora hurbildu zara. Ez da garbi ikusten zer jartzen duen, baina beste haize bolada batek erabat itsatsita utzi du leihoaren kristalean paper zatia. Orain bai, orain garbi ikusten duzu zer jartzen duen: “Hurrengo, zu!”

*Ander Orbañanos*

## Lau pareta artean

1993ko urtarrilaren 25a dugu jadanik. Egun hotza, euritsua eta tristea, nolabait. Izan ere, orain dela hiru urte eta zazpi hilabete sartu ninduten hemen, bost metro karratu besterik ez dituen lau pareta gris hauen artean. Ohe batek, herdoilduriko lau hanketako mahai batek eta aulki batek lagun egiten didatela. Merezia, batzuen ustetan. Beste batzuek, ordea, hiru urte igaro arren, oraindik ere nire buruaz fidatzen direnak ere badaudela ohartarazten didate: familia, lagunak, beraien bizitza zurekin igaro duen jendea izan arren, betidanik eta betiko zurekin egongo direla erakusten dute.

Goizeko bederatzi eta erdiak dira eta ibilgu eta “gelatxo” guztietan bi bonbillaz osaturiko lanparak argia egiten du, hemen gauden guztioi begietara nolabaiteko mina egiten.

—Esnatzeko garaia da! —dio urdin ilunez jantzitako gizonak. Lehenengo pisuko zelda guztiak pasa ditu ia hamar minututan eta ibilguaren amaieran dagoen etengailuari sakatu dio zelda guztietako atea irekiz. Bertako guztiok nor bere atearen aldamean jarri gara eta hileroko inspektioari ekiten diote pijama urdin iluneko gizonak. Nire zeldak 232. zenbakia du eta eraikineko bigarren solairuan kokaturik dago beste hainbat gizonen zelden artean. Batzuetan beren begiradarekin hilko zaituztela pentsarazten dizute; baina azkenean, beraietaz paso egiten ikasten duzu.

Gogoratzen dut hona iritsi nintzen eguna, egun madarikatu hura: pijama urdineko bi tipok bultzatzen ninduten, eskuburdinez lotuta. Beraietako batek nire burua mukurrazten zuen eskuarekin eta bestearekin tinko heltzen zien nire eskuburdinei. Hainbat ate elektriko igaro nituen postura horretan eta preso guztien begiradak jasoz iritsi nintzen nire zeldara.

\*\*\*\*\*

1990eko abuztuaren 25a zen, lehenengo eguna infernu horretan berarentzat. Iritsi eta ordu betera preso guztiak patiora irteteko garaia zen. Denbora luzez ikusi ez zuten eguzkiaz gozatu ahal izango zuten. Arratsaldeko bostak ziren puntu-puntuan eta ate elektrikoak ireki ziren inongo arazorik gabe. Preso bakoitza atearen aldamenen jarri eta, ilaratan, kartzelan momentu horretan zeuden 300 presoak patio handira irten ziren. Bertan ederki antzematen ziren kartzelan osaturiko talde txoak: kartzelako harropuzak, hau da, nahi zutena egiten zutenak, edo istorio honetako gizona bezalakoak, bere buruarekin nahikoa zutenak eta inori ezer egin gabe beraien egonaldi luzea besterik gabe igarotzeko gogoia zutenak.

Gizona patioaren izkina batean kokatu zen lurrian etzanda, zeruari begira, bere pentsamenduak liburuxka batean idatziz. Han idatzi zuen nolakoa zen bere barne egoera momentu hartan eta zein izan ziren bere lehenengo pentsamenduak kartzelan.

\*\*\*\*\*

Momentu batean, munduan bakarrik nintzela pentsatu eta nire liburuxkako hiru orrialde bete nituen nire arazo eta kezka guztiez: nire familiarekiko tratua, lagunengako konfiantza eta neskalagunarekin izan nituen arazo guztiak irudikatu nituen.

Bat-batean, gizon beltz bat urreratu zitzaidan eta hitz egiteko gogoia zuela zirudien, beraz elkarrizketa bat hasi nuen berarekin:

—Kaixo, nola duzu izena?

—Eneko —esan nion ahots arrotzez.

—Eta esan, zein da zu hemen egotearen arrazoia, gazte?

—Ez dut uste garrantzitsua denik zuretzat, eta nahiago dut ez berriz gogoratzea.

—Ongi da, gazte; baina nik ez dut zu hemen egotearen errurik. Denbora igaro ahala, konturatuko zara zer den hemen egotea eta zer den hemengoak errespetatzea.

—Baina nik ez dut zertan hemen egon! Errugabea naiz!

—Bai, bai, gazte! Guztiok gara hemen errugabe...

Orduantxe alde egin zure agure hark. Beranduxeago ohartu nintzen liburuekin atzera eta aurrera ibiltzen zela kartzela guztian zehar, presoek entretenitzeko zerbait emanek. Hurrengo egunean, nire barne presioa askatzen joan zen heinean, agure harekin hitz egiten hasi nintzen pixkanaka eta, azkenean, nire kartzelako lagun bakarra izatea lortu zuen.

\*\*\*\*\*

Jadanik astebete igaro zen eta Enekok ezin zuen gehiago: lau pareta haien artetik irteteko gogoak bere buruaren lasaitasunari irabazten zion eta nola-hala handik irteteko modu bat pentsatu behar zuen. Hainbesteko sugarrarekin agurearengana jo zuen eta

liburutegi osoa miatu zuten goitik behera, izan ere, agureak bazekien liburutegi zahar haietan kartzelaren plano zahar batzuk ezkutatzen zirela eta nolabaiteko irtenbide bat bazegoela; baina, miaketa horretan ari zirela, agureak esan zuen:

—Aizu, Eneko! Aurkitu ditut! Badakit konfiantza osoa eduki dezakedala zugar, baina lehendabizi zuk ere nirekin fidatu behar duzu. Zergatik zaude hemen, gazte?

—Beno, bada astebete hemen nagoela eta ez naiz gai nire burua kontrolatzeko, beraz, kontatu egin beharko dizut: duela hilabete nire etxean nengoen neskalagunarekin, eta haserrealdi bat izan genuen, nahiago dudana ez gogoratu mesedez, baina haserrealdi horren ondorioz etxetik joan nintzen eta gaua hotel moduko batean igaro nuen. Badakit ez naizela nire gorputzak bat-batean dituen inpultsoak kontrolatzeko gai eta gau horretan krimen perfektua antolatu nuen, gaur egun ehuneko ehun damutzen naizena, baina momentu hartan nire barneko suak nirekin ahal zuen. Gaua igaro zen eta, hurrengo egunean, hiltzaile profesional bati deitu nion. Jada ez naiz gogoratzen nondik lortu nuen zenbakia eta nahiago dut ez gogoratu; baina egin nuen eta, hiru mila eurogatik, nire neskalaguna hiltzea agindu nion —mutilak negarrez jarraitu zuen kontakizuna—. Astebete pasata, hiltzailearen dei bat jaso nuen, nire neskalaguna hil zuela esanez. Ni, egindakoarekin erabat damututa, poliziarengana jo nuen, egin nuena aitortuz eta istorio guztia kontatuz.

—Eneko, bai istorio bitxia zurea, mutil! Egia esan, neurea oso bestelakoa da; baina, nahi izanez gero, kontatuko dizut.

—Bai, mesedez! Ea horrela nirea ahazten dudana behingoz.

—Ez, gazte! Gauza hauek ez dira berehalakoan ahazten; baina horrelakoa da bizitza. Beno, begira, motzean esanda: banku bat lapurtu nuen nire anaiarekin batera; baina, minbizia zuenez, hil egin zen eta nik hemen eman ditut nire azken hogeita bost urteak.

—Jadanik badakigu guztia batak besteaz; beraz, orain gure planari ekiteko garaia da, ezta?

—Gazte, sentitzen dut horrela esan beharra, baina nik ez dut alde egingo hemendik, nik ez dut ezer eraikuntza honen kanpoaldean. Nire pentsamenduak bakarrik geratzen zaizkit bizitza honetan. Nahi baduzu, nik lagunduko dizut planoekin; baina, betiere, polizien gorabeherak oso ongi aztertu behar ditugu egunero, orduro, minuturo. Beren mugimendu guztiak jakin behar ditugu eta, garrantzitsuena, berek ez gaituzte gu kontrolatu behar.

\*\*\*\*\*

Guztiaren prestakuntzarekin hasi ginen agurea eta ni. Liburutegiko planoak hartu eta ihesaldiari ekin genion. Agureak esan zidan bezala, preso bakoitzaren gelatxoak bentilazioko sarrera bat zuen eta horren aurrean mahaia jar genezakeen. Baina zerk lagunduko zigun zuloa egiten? Kartzelan ez geneukan ezer; eta, nik ez dakit nola eta noiz,

baina agureak mailu txiki-txiki bat lortu zuen eta, harekin, egunero-egunero, argiak itzaltzen zituztenean, zuloa egiten joaten nintzen pixkanaka-pixkanaka. Egun horietan ere zuloaren nondik norakoak, behealdeko pasadizoak... aztertu behar genituen. Horrela, eguna joan eguna etorri, gauero zuloa handitzen joaten nintzen eta egunero zerbait desberdina topatzen nuen pasadizo haietan. Egun horietako batean, kartzela guztiko argiak itzali eta, gauero bezala, zulora nindoan, soinu arraro bat entzun nuen; aldameneko presoaren gelatxoan, hain zuzen. Burua biratu nuen eta hantxe ikusi nuen nire ondoko presoak beste zulo bat egin zuela eta biak kontaktuan jartzeko unea zela, nahiz eta han igarotako egonaldi guztian, hiru hilabete igaro zirela jadanik, ez nuen berarekin txintik ere egin.

\*\*\*\*\*

Bi gazteak ideiak bateratu, eta zulo bakar bat egiten jarraitzea pentsatu zuten. Horrela, lau hilabete pasa ziren Enekoren lehenengo egunetik eta handik alde egiteko irrikaz zegoen, bere lagun berria bezala, eta, azkenean, data bat jarri zuten. Astebete igaro eta infernu hartatik alde egingo zuten. Orain sei egun falta ziren behin-betiko eguneraino eta agurea eta bi gazteak azken ukituak egiten ari ziren. Planoen arabera, agureak hauxe esaten zuen: bakoitza bere gelatxotik irten eta aurreraka joan behar zuten hamabost bat metro, jarraian hiru bat metro eskuinerantz eta beste lau ezkererantz. Horrela juxtu bailararaino iritsiko ziren bi gazteak eta bertan nola-ahala korrika alde egin behar zuten.

\*\*\*\*\*

Azkenean, iritsi zen gure eguna, infernu nazkagarri honetatik alde egiteko eguna, bai horixe! Nire nerbioak pil-pilean zebiltzan eta artean arratsaldeko seiak ziren. Minuturo pentsatzen nuen askatasunean. Libre izatea, inoren menpe egon gabe, eta, batez ere, inork kontrolatuko ez zidan leku batekin amesten nuen. Azkeneko aldiz, preso guztiak bildu ginen jangelan eta afaldu egin genuen, egunero bezala, patata purea eta haragi pusketa ziztrin bat, baina egun horretan konformatzen nintzen zegoenarekin, seguru bainengoen hurrengo egunean bapo jango nuela.

Gaueko hamarrak ziren eta presoak bakoitza gure gelatxoetan ginen. Argian itzali, isiltasuna nagusitu, poliziaren hainbat buelta; baina guganako inongo zalantzarik gabe. Bai, alde egiteko unea iritsi zen.

Kas, kas! Ondokoari paretan pare bat golpe jo eta, isil-isilik, ihesari ekin genion. Mahaia alde batera mugitu, bentilazioaren leiho modukoa kendu, zuloan barrena sartu eta kontuz-kontuz berriz ere bentilazioko leiho modukoa ipini nuen, inongo zulorik ikusten ez zela ziurtatuz. Ondokoari besarkada bat eman, eta lehenbailehen planoetako bideari jarraitu genion. Denbora bat igaro zen eta jadanik irteera aldera hurbiltzen ari ginen, kartzelako argi handik ikusten ziren alde batetik bestera mugitzen zirela eta hainbat polizia dorre desberdinetan pistola handi batekin bakoitza, nahiz eta erdi lo ziren gehienak.

Amaitu zen guztia, nire laguna eta ni kanpoan ginen jada, bailara pasa genuen, dorreetako poliziek ez gintuzten ikusi, ezta argien laguntzaz ere, baina oraindik ere ez zen behin-betiko amaiera. Orain, azkeneko korrika saioa falta zen, azkeneko guardia bat. Zakur handi batekin igarotzen zuen gaua hark eta oso usaimen fina zuten, gainera, zakurrek. Beno, lagunak eta nik hasperen egin eta korrika hasi ginen, sekula egin ez nuen bezala. Guardia haren paretik pasa ginen, baina ez zen konturatu polizia hura, zakurra baizik. Azkenean, zakurra zaunkaka hasi zen, gure atzetik korrika. Hainbat guardia irten ziren zakurren atzetik eta beste hainbat auto desberdinetan. Basoan zehar sartu ginen; baina, hala ere, segituan ikusi gintuzten. Hainbeste denboran zehar prestatuiko plana pikutara bota genuen bost minututan.

Orduan bai amaiera zela: kartzelara sartu gintuzten berriro, betiko patata purea eta haragi ziztrin hura jatera, eta, okerre zena, egonaldia luzatu egin ziguten. Orain okerre zena pentsatzen nuen, berriz ere lehenengo egunean bezalaxe nintzen, patio izkinan etzan gorantz begira, liburuxka hartu eta nire pentsamendu eta damuak idazten.

Liburuxka horretan idatzi nituen azken hitzak izan ziren hauek: betidanik eta betiko, agure eta lagunen artean, hementxe izkina batean.

*Janire Arrondo*

## **Euskalduna izatearen arazoa**

1939ko martxoaren 15a zen, ez dut sekula ahaztuko. Egunero bezala, goizeko seietan esnatu, behiak jetzi eta eskolara joan behar izan nuen zortzietarako. Klasera sartu aurretik, eskolako atarian elkartu ginen guztiok eta, ohikoa zen bezala, espainiar himnoa kantatu genuen bandera gorri-horia altxatzen zuten bitartean. Kantua bukatu eta klasera sartu ginen. Gogoan dut oraindik, gainera, historiako klasea genuela eta lehenengo mundu gerrari buruz aritu ginela, lehenengo mundu gerraren ondoriok, arrazoiak... ikusi genituen, baina ez nuen uste horren gertu izango nuenik antzeko egoera.

Eguerdian etxera joan nintzenean, ordea, dena ez zegoen egunero bezala. Etxera ailegatu nintzenean, ama sukaldean zegoen sutondoan negarrez, eta anaia zaharra bere ondoan hura lasaitzen. Zerbait falta zen gure etxean, aita. Egoera ikusi orduko galdetu nien anaia Antton eta amari:

—Zer gertatu da?

—Txomin, eseri adi hemen, hirekin hitz egin behar diagu —esan zidan amak negarri eutsi ezinik.

—Hi anaia, oso latza duk kontatu behar diaguna; beraz, indartsuak izan behar diagu eta familia aurrera atera beharra zagok nola edo hala —esan zidan Anttonek.

—Aita da, ezta? Zer gertatu zaio aitari? —galdetu nuen urduri eta negargurez.

—Txomin, aitak etxetik joan beharra izan dik; izan ere, Frankok lista bat dik apuntatuta hiltzea helburu dituen pertsonen izenekin eta aita duk lista horretako hirugarrena. Beraz, ihes egin behar izan dik Euskal Herritik eta ez zakiagu inork nora joan den, ez zakiagu ongi egongo den, ez zakiagu ezer. Hala ere, hiri zerbait galdetzen badiate, hik ez dakik ezer, Txomin, ez duk aitaren berririk.

\*\*\*\*\*

Inaxio, Txomin eta Anttonen aita, 1939ko martxoaren 15ean beharrezko izango zituen gauzak hartu eta oinez abiatu zuen ihesaldia. Mendiz mendi ibilbide luzea egin zuen hil ez zezaten, tristuraz betetako ibilbidea. Inaxiok, bidea kostaz kostea egitea erabaki zuen.

Lehenengo egunean goizeko bederatzietatik gaueko hamarrak arte ibili zen ordu beteko atsedenaldia eginda bakarrik. Baionaraino iritsi zen, Espainiak eta Frantziak muga egiten duten puntutik gertu. Inguruak ongi begiratu ondoren, txoko bat aurkitu zuen zuhaitz baten ondoan nahiko ezkutuan eta bertan gaua pasatzea erabaki zuen. Inaxiok bizitzako gaurik okerreanean aurkitzen zen, erabat suntsituta zegoen. Hala ere, familiaren argazki bat soinean zeraman eta hari begira aurrera egiteko indarra eta kemena etortzen zitzaizkion. Nahiko negar egin ondoren hartu zuen lo Barakaldoko baserriar langileak.

\*\*\*\*\*

Hurrengo egunean, amak eskatu zidan bezala, egunero bezala jokatu behar izan nuen. Beraz, seietan esnatu eta behiak jetzi ondoren, gosaldia, jantzi eta eskolara joan nintzen. Egunero bezala, Espainiar himnoa kantatu genuen, bandera gorri-horiaren aurrean eta eskua bihotz gainean jarritz.

Egun hartan inoiz baino okerrago sentitzen nintzen kantu hau kantatzen. Izan ere, nire aita hil nahi zuten pertsonen omenez kantatzen ari nintzela sentitzen nuen. Baina, nik zalantza bat nuen: zer egin ote zuen nire aitak bera hil nahi izateko?

Hala ere, anaia Anttonek esan zidan bezala, indartsuak izan behar genuen. Beraz, eskolatik irtendakoan, etxera joan eta aitaren lanak egin genituen bi anaion artean: belarra moztu, meta egin, egurra ekarri, behiei jaten eman... Arratsalde osoa honela eman ondoren, amak prestatu zuen afaria jatera joan ginen. Afarian zehar isiltasuna zen nagusi egun hartan, tarteka hirurotako norbaitek esaten zuen: non ote dago? Zer moduz ote dago? Zer egin ote du berak? Baina, galdera horiek ez zuten erantzunik.

\*\*\*\*\*

Goiz esnatu zen ihesaldiaren bigarren egunean Inaxio. Goizeko bost eta erdietan

ibiltzeari ekin zion eta, gelditu gabe, hamabi ordutan, Bordeauxeko herrira iristea lortu zuen; tartean estutasun larri batzuk izan arren, lortu zuen.

Ibilaldiari ekin eta lehenengo bost minutu egin zituenean, ahots batzuk entzun zituen. Beraz, belarretan etzan zen badaezpada ere. Kasualitatez, berdez jantzi zen etxetik irten zen egun hartan Inaxio, eta belar tartean etzanda ez zitzaion ikusten, berdez jantzita egoteaz gain gizon txikia eta oso mehea zelako. Han etzanda zegoela, hamabi soldaduko talde nazionalista bat pasa zen Inaxioren muturren aurretik, Inaxio hiltzeko agindua zutenak. Estutasun larria pasa zuen Barakaldoko baserritarrak.

Hamar minutu gehiago eman zituen belarretan etzanda badaezpada ere, eta, ondoren, bidea jarraitzea erabaki zuen. Aurrera zihoan bere pentsamenduetan murgilduta, triste, Inaxio eta halako batean, burdinazko hesi batekin topatu zen. Burdinazko hesi horrek Frantziarako pasara oztopatzen zion eta, Espainian zegoen bitartean, hiltzeko arriskuan zegoen. Beraz, hesi hori nola edo hala pasa behar zuen: azpitik ez bazen, gainetik. Pentsatzen eman zituen ondorengo pare bat minutu, eta gainetik pasatzea arrisksuegia iruditu zitzaion; beraz, eskuen laguntzaz, hormaren azpian zuloa egin eta bertatik pasatzea erabaki zuen. Inaxiok beste aldean gorriekin aurkitzeko beldur zen, baina ez, ez zegoen gorririk beste aldean, zakur handi bat bakarrik zegoen. Zakurrak, baserritarra ikusi zuenean, zaunkaka hasi zitzaion, baina Barakaldoko baserritar txikiak azkar jakin izan zuen zer egin, piztia hura lasaitzeko.

Txakurra lasaitu bezain pronto, Inaxiok bideari ekin zion berriz ere. Oraingo honetan lasai jarraitu zuen aurrera, eta beste pare bat ordu egin zituen, mendi tontor bateko txabola zaharkitu eta utzitako bat ikusi zuen arte. Ordurako arratsaldeko bost eta erdiak zirela markatzen zion erlojuak iheslari txikiari eta atsedean pixka bat hartzea erabaki zuen. Etxolaren barnean eta inguruan inor ez zegoela ziurtatu eta etxolara sartu eta bertan zeuden lasto fardo batzuen gainean etzan zen. Familiaren argazkia atera zuen eta hari begira hizketaldi luze xamarra izan zuen; ordu erdi bat gutxi gorabehera behar izan zuen familiari egunean zehar gertatu zitzaizkionak kontatzeko. Azkenik, argazkiari musu bat eman eta poltsikoan sartu zuen, berriz ere bideari ekinez.

Hurrengo lau orduak inongo arazorik gabe egin zituen, eta zortziak eta hogeitenguan Royan izeneko herri batera iritsi zen. Han pare bat egunez geratu eta, ondoren, Pariseraino joateko asmoa zuen Inaxiok.

Beraz, gau hartan lo egiteko lekua bilatzen hasi zen. Osteratxo bat egin zuen herri txiki eta arrantzale artan, jendeari galdetu zion... baina alferrik. Inork ez zion lotarako lekurik eman nahi baserritarrari. Beraz, itsasontzi batera sartu eta logelatako kabinak irekita aurkitu zituen eta, bi aldiz pentsatu gabe, gaua bertan pasatzea erabaki zuen. Ederki egin zuen lo Inaxiok gau hartan, nekea ere galanta baitzuen ordurako.

\*\*\*\*\*

Aita etxetik joan zenetik pasa ziren jada zortzi egun. Egun honek ere izan zuen berea, izan ere, hilaren erdialdea zen eta arraroa zen gure etxera eskutitz bat iristea.



Amak ni bidali ninduen postontzia begiratzera eta bertan eskutitz bat aurkitu nuen. Honela zioen eskutitzaren azalak: para Jose Anton Barandiaran. Nire anaiarentzat, hori bai gauza arraroa. Eskutitza hartu, postontzia giltzaz itxi eta amari eman nion etxera iritsi bezain laster. Amak azalean jartzen zuena ikusitakoan esan zuen:

—Lehenengo Inaxio, orain Antton... zer egin behar dut nik orain?

Hala eta guztiz ere, eskutitza ireki eta irakurri egin zuen nire anaiari zegokion eskutitza. Nire amak irakurri ondoren kontatu zidanaren arabera, anaiari soldaduska egitera joateko ordua iritsi zitzaion eta hurrengo egunean medikuarengana joan behar zuen, errebisioa egitera. Anaia herriko azokara jaitsia zen, esnea saltzera eta, iritsi bezain pronto, amak, astebete barru soldaduska egitera Burgosera joan behar zuela esan zion.

Anttonek, hura entzun zuenean, agindu zidan ez gintuela bakarrik utziko. Tentsio handiko momentu hura pasa ondoren, afaltzeari ekin genion malkoak begietatik isurtzen genituelarik. Hirurok genuen aita gogoan eta hura galtzeko beldur ginen. Eta hori gutxi balitz, anaia Antton erotzen hasia zen, amari hurrengo egunerako arropa uzteko eskatu zion eta, bazkaltzeko, belarrezko ogitartekoa egin zuen, medikuarengana joan behar baitzuen eta ez zen etxera etorriko bazkaltzera. Zer ote zuen Anttonek galdetzen nion nik neure buruari.

Hurrengo egunean, seietan esnatu ginen bi anaiok behiak jezteko eta medikuarengana laguntzeko eskatu zidan Anttonek. Gainera, esan zidan:

—Medikuarekin hitz egiten duanean, erotzat jo behar nauk!

Beraz, behiak jeztea bukatu bezain pronto, biok batera gosaldu genuen. Ondoren, ni jantzi nintzen eta gero anaiari lagundu nion janzten, izan ere, neskak konplikatu xamarak dira eta nahikoa komeria ibili genituen gona janzten, titi-zorroak janzten...

Anaia janztea bukatu ondoren, Paki astoaren gainean jarri eta herriko medikuaren etxera jaitsi ginen. Haren etxera iristerako, hamaikak eman zizkigun eta egongelan itxarroteko agindu zigun momentu batez. Bertan, zain ginela, bat-batean Anttonek belarrezko ogitartekoa poltsatik atera eta jateari ekin zion. Baina bi hortzakada egiteko denbora bakarrik eman zion; izan ere, berehala zen medikua beraiekin. Medikiak, Antton neskaz jantzita eta belarrezko ogitartekoa jaten ikusi zuenean, esan zuen:

—¿Este chico piensa defender a nuestra ciudad?

Ez zion probarik egin anaiari eta niri, berriz, ez zidan ezer esan; beraz, nire erdara maila oso ona ez zenez, isilik geratzea erabaki nuen badaezpada ere. Medikiak paper hori bat hartu eta bolaluma urdin batekin ohar hau idatzi zuen: “ Jose Antonio Barandiaran tiene una deficiencia mental y no podrá acudir a la mili”.

Hura ikusi eta, pozaren pozez, medikuaren etxetik irten, Pakiren gainean jarri eta etxerako bidea hartu genuen.

\*\*\*\*\*

Hurrengo egunean, Inaxio gizon bizardun zatar baten ahots zakarrak esnatu zuen. Baserritarrak ez zuen ulertzen gizon hark zioena, baina ez zirudien oso umorez jaiki zenik. Hala ere, nola edo hala, lasaitu zuen gizona Inaxiok eta, keinu bidez, itsasontziko telefonoa erabiltzeko baimena eskatu zion. Orduan, Georgek, gizon bizardunak eta itsasontzi hartako patroiak, itsasontziko gidariaren kabinara gidatu zuen iheslaria eta honek paper batean etxeko telefonoa idatzi zion. Itsasontziko patroiak, papereko zenbakiak markatu zituen eta Inaxiok bere andrearekin hitz egin ahal izan zuen:

—Kaixo, Nekane! —esan zion Inaxiok.

—Nor zara? —galdetu zion, orduan, Nekanek.

—Inaxio naiz. Nekane, dei motz bat da, ondo nago; baina ezin dizut esan non nagoen badaezpada ere. Ondo zaindu semeak eta gogorak izan —hori esan eta eskegi egin zion Inaxiok, ondoan zuen gizonak ez baitzion oso aurpegi onez begiratzen.

Eskegi bezain laster, Georgek nahiko garbi esan zion telefonoko dei hori ordaintzeko bi egunez egin beharko zuela lan itsasontzian.

Inaxio ados egon zen gizonarekin; izan ere, ez zitzaion inorekin zorretan egotea gus-tatzen. Eta, beraz, gau horretan bertan itsasora irten ziren. Ikaragarrizko aldaketa Inaxioentzat: menditik, itsasora.

Gau osoa sarea bota eta jasotzen eman zuen; arrantzale lana gogorra zela konturatu zen Inaxio. Goizean, patroia marmartiak hiru orduko atsedena eman zion; bazirudien umore hobez esnatu zela behintzat. Beraz, logeletara joan eta ohe batean etzan zen eta familiako argazkiari begira jarri zen euskalduna. Bakarrik sentitzen zen Inaxio, bere familia behar zuen ondoan aurrera jarraitzeko, ezin zion negarrari eutsi. Bat-batean, George logelara sartu zen eta euskaraz hitz egiten hasi zitzaion.

—Zer duk, gazte? —galdetu zion patroia bizardunak.

—Euskaldun al zara?

—Ez, ni ez, baina nire gurasoak bai —azaldu zion patroiak.

—Ni ere hala naiz. Baina, euskalduna izateagatik, hila nahi naute. Eta nire familia han utziz, Espainiatik alde egin behar izan dut lehenbailehen.

—Nola egin duk hori? Honelako momentuetan familiarekin egon behar duk. Denok alde egin behar zenuten, ez hik bakarrik... beraz, joan hadi nire kabinara eta dei iezaioke emazteari. Esaiok joateko bihar eguerdiko ordu biak laurden gutxietan Bermeoko portura eta bertan jasoko diagu hire familia —agindu zion Georgek.

Orduan, Inaxiok, gizon bizardun hark esanda bezala, gora joan zen, kapitainaren kabinara, telefonoan numeroa markatu zuen eta andrearekin hitz egin zuen. Patroiak esan bezala, ordu biak laurden gutxietan azaltzeko agindu zion. Telefonoa eskegi ondoren, Georgengana joan eta bere esker ona azaldu zion eta Georgek lanera bidali zuen, bihotz oso oneko gizona izan arren, marmarti xamarra zelako.

Beraz, Inaxio gora joan eta lanean jarraitu zuen gogo biziz goizeko laurak arte. Goizeko lauretan, patrioiak dena jaso eta lotara joateko agindua eman zuen eta esandakoa bete zuten mutilek.

★★★★★

Asto gainean etxera iritsi ginenean, ama pozez txoratzen aurkitu genuen. Ailegatu bezain pronto eseri eta entzuteko agindua eman zigun.

—Aitaren bi dei jaso ditut. Lehenengo deian, ongi zegoela esan dit eta zuek ondo zaintzeko eskatu dit. Bigarrenengo deian, berriz, bihar ordu biak laurden gutxiatarako Bermeoko portura joateko eskatu dit zuekin —azaldu zigun amak eta besarkatu egin gintuen.

Gero, anaia Anttonek azaldu zion erotzat jo zuela medikuak eta ez zuela soldaduska egitera joan behar.

Nik poza handia sentitu nuen amak eman zigun berriaren ondoren; baina beldur nintzen. Zer aurkituko ote genuen Bermeoko portuan? Aita aurkituz gero, gurekin geratuko ote zen betirako, ala ez? Galdera asko egiten nizkion neure buruari; baina beste behin, galdera guzti horiek ez zuten erantzunik.

Berri on horiekin eguna poztu arren, baserriko lanak ez ziren bakarrik egiten. Beraz, arratsalde osoa anaia eta biok lanak egiten eman genuen. Arratsalde oso isila izan zen, biotako inork ez zuen ezer esaten, nik uste dut bakoitzak bere galderak zituela buruan bueltaka.

Hurrengo egunean, seietan esnatu ginen, egunero bezala, bi anaiok behiak jeztera. Behiak jetzi ondoren, basoka bat esne hartu genuen, ama, Anttonek eta nik eta, ondoren, amak ogitartekoak prestatu zituen Bermeon bazkaltzeko. Dena prestatu ondoren, oinez egin genuen baserritik herrirainoko bidea. Herrian, tren hartu genuen goizeko hamabiak bost gutxietan eta Bermeora hamabiak eta hogeietan iritsi ginen. Trenetik jaitsi eta belardi handi batean eseri ginen, ogitartekoa jan eta ordu laurden batez gutxi gorabehera eguzkia hartu genuen. Ordu batak eta laurdenetan portu aldera joaten hasi ginen badaezpada ere, gutako inork ez baitzuen Bermeo ezagutzen, baina segituan aurkitu genuen portua eta ordu bata eta erdietarako han ginen.

Ordu biak laurden gutxitan, puntual, itsasontzi berde-urdin bat sartu zen portura. Bai, hark izan behar zuen; izan ere, gu eserita ginen eskaileren parean geratu zen. Berehala gizon bizardun bat patrioiaren kabinatik atera zen eta esan zigun:

—Ei, sar zaitezte itsasontzira!

Guk esandakoari kasu egin genion eta lehenengo Antton pasa zen, gero ni eta azkenik ama. Ondoren, gizon hark logela batzuetaraino gidatu gintuen eta han zegoen aita. Eskailera batzuk jaitsi eta estu-estu besarkatu gintuen hirurok negar zotinka. Familiako inork ezin izan zion malkoari eutsi, izan ere egun latzak pasa genituen.

Guk lau egun haietan bakoitzari gertatu zitzaizkionak kontatu bitartean, itsasontziaren motorrak martxan jarri eta itsasoan zehar abiatu ginen.

Aitak esan zigun Frantziako Royan herrian igaroko zutela egun bat eta, ondoren, Ameriketara bidaiatuko zutela hegazkinez.

Momentu horretan joan zitzaizkidan nire beldur, zalantza eta galdera guztiak. Familia guztia batera ginen berriz eta edozer emango nukeen momentu horretan beti horrela izateko. Lau egun haietan ikasi nuen familia dela dugun gauzarik garrantzitsuen eta ez garela ohartzen galtzeko zorian dugun arte.

\*\*\*\*\*

Patroiak, Bermeotik gertu zeudenean, Inaxiori badaezpada ere logelatan sartzeko agindu zion eta bost edo hamar minutu beranduago bere bi semeak eta Nekane, bere emaztea, logelatako eskailerak jaisten ikusi zituen. Hirurak estu-estu besarkatu ondoren, lasaitu ederra hartu zuen Barakaldoko baserritar txikiak. Dagoeneko ez zen bakarrik sentitzen.

Ez zegoen familia hori banatuko lukeen inor momentu horretan. Inaxiok ere lau egun haien ondoren konturatu da familia gabe pertsona batek ezin duela aurrera jarraitu, ez duela indarrik aurrera jarraitzeko. Bakardadea da Inaxiorentzat bizitzan jasan duen sentimendurik txarrena.

*Aurora Makazaga*

